

# MUSIKA BULEGUA

Batzen  
gaituena.

**2025**  
URTEKARIA  
ANUARIO



**Maddi Arana**  
Musika Bulegoko Lehendakaria

## Editoriala

Musika Bulegoak hamar urte bete dituen honetan, egindako bideari begiratzeaz gain, etorkizunari begira jartzeko unea ere bada. Urteurrenek badute hori: ospakizunerako aitzakia izateaz gain, nor garen eta nora goazen berriro pentsatzeko aukera ematen dute.

Denbora honetan, euskal musikaren sektorearekin batera hazi gara, eta aurten ere norabide horretan sakontzen jarraitu dugu. Sorkuntza, topaketa eta nazioartekotzea bezalako arloetan lanean jarraitu dugu, baina batez ere, komunitatea sendotzen: elkarlanetik, entzute aktibotik eta aniztasuna balioan jarriz.

Urtekari honek urtean zehar egindako lana biltzen du: proiektuak, datuak, hitzarmenak eta sektorearen beraren ahotsak. Baina, batez ere, partekatutako ekosistema baten isla da, etengabe eraldatzen ari dena eta bere indarra elkarlanetik eraikitzen duena.

Eskerrik asko bide honetan bidelagun izan zareten guztioi. Etorkizuna ere elkarrekin irudikatzen jarraitu nahi dugu.

## Sektorearen zerbitzura, aurrera begira

Aurtengoan, Musika Bulegoak urrats esanguratsu bat eman du sektorearen egituraketan eta proiektzioan, bereziki, Must +PRO topagune profesionalaren lehen edizioarekin. Egitasmo berri honek inflexio puntu bat markatu du: Euskal Herriko Musika sektoreko eragileak elkartzeko eta bertan protagonista izateko. Sektoreari ikusgarritasuna emateko, sektorearen garapenean laguntzeko; formatzeko eta ezagutza partekatzeko, eta nola ez, aukerak sortzeko, izan nazio mailan izan nazioarte mailan.

Norabide horretan, urtean zehar abian jarritako lan-ildoak sendotu dira. Formakuntza eta aholkularitza zerbitzuak indartu dira, erakundeko plan ezberdinetan aurrera egin da –euskararen sustapena, berdintasuna eta jasangarritasuna– eta azkenik lankidetzak berriak hitzartu ditugu lurraldeko hainbat eragile garrantzitsuekin, nabarmentzekoak unibertsitate esparrukoak.

Emaitzek erakusten dute norabide egokian goazela: jardueren parte-hartzea handitu da, komunikazioaren irismena zabaldu da eta sektorearekiko lotura estutzen jarraitu dugu. Lan asko egin da baina egiten jarraitu behar da, etengabean, sektorearen ezaugarrietara eta beharretara erantzuten duten ekimenen eta jardueren diseinuan eta antolaketan, musika sektorearen jardunaren hobekuntzan eta sustapenean ahalik eta gehien eragiteko helburuarekin.

Aurrera begira, erronkak argi ditugu, baina baita abiapuntua ere.



**Iker Durana**  
Musika Bulegoko  
Zuzendari kudeatzailea

## Zuzendaritza Batzordea

**Lehendakariordea:** Alex López (Kultura Live)

**Diruzaina:** Amaia Ispizua (MIE)

**Idazkaria:** Marina Landa (Musikari)

**Bokalak:** Aitor Ucar (Musikagileak), Amets Rodríguez (MIE), Gotzon Uribe (Kultura Live), Natalia Sánchez (ESAS), Sara Azurza (Musikari).

# AURKIBIDEA

## Elkarrekin eraikitzen: jarduerak eta lorpenak 2025

2025: Sormenaren indarra eta egiturazko erronkak	4
Lan taldea. Proiektuaren motorra	6
Musika Bulegoa: 10 urte batzen gaituen musikaren alde	8
Musika Bulegoa 2025 datuetan	10
Plan estrategikoak	12
Tejiendo alianzas para el futuro del sector musical	13
Ezagutza partekatuz: Sektorea Indartzen	14
Aukera berriak	
Topaketa profesionalak	16
Sorkuntza	18
Kanpo zabalkundea: Road map	20
Jarduerak	
Musika Bulegoa Sariak	22
Hots & Hitz	23
Kanthoria eta Auto-tunea erakusketa	24
Beste jarduerak	26

## Musikaren sektorea Euskal Herrian

2025ko kontzertuak	30
Urteko mugarriak	32
Agur esan barik	34
Incentivos fiscales y cultura	36
2025ko uztatik 10 altxor	42

## Musikaren etorkizuna: erronkak eta hausnarketak

Mitoaroa edo euskal musikaren aro berria	44
Spotify boikoteatu eta, orain zer?	48
Presente al dago sexismoa euskal kantetan?	50
Musikagintzan ere, bizitza osoko prestakuntza	52

## Elkarteen Ahotsak

Festivales: una efervescencia que fluctúa entre luces y sombras	56
Kontzertu areto pribatuak, mundu aldakorrean	58
La escucha como acto de rebeldía	60
Chat GPT-ri galdezka	62

# 2025:

## SORMENAREN INDARRA ETA EGITURAZKO ERRONKAK

2025a urte bereziki emankorra izan da Euskal Herriko musika-sektorearentzat. Sormenaren ikuspegitik, proiektu askok oihartzun handia lortu dute eta publiko zabalak erakartzea lortu dute. Bereziki euskarazko musikak ikusgarritasun handiko uneak bizi izan ditu, areto eta espazio handiak betetzeko gai izan diren proposamenekin eta lurralde barruan zein kanpoan eragin nabarmena sortuz.

Hala ere, urtearen balantzeak hausnarketa sakonago baterako gonbita ere egiten du. Musika Bulegoak sektoreko elkarte, industria-eragile, areto, musikagile eta musikariek jasotako ekarpenek errealitate konplexua erakusten dute: sektore dinamiko eta sortzailea, arrakasta handiak sortzeko gaitasuna duena, baina aldi berean barne-desoreka garrantzitsuekin bizi dena.

### ARRAKASTA HANDIAK, BAINA OINARRI AHULA

Musika Industriaren Elkarteko (MIE) presidentea den Amaia Ispizuren ustez, 2025a “urte historikoa” izan da euskarazko musikarentzat. Proiektu batzuek orain arte ikusi ez dugun dimentsioa hartu dute, milaka lagun bilduz kontzertu handietan eta euskal eszenak publiko masiboekin konektatzeko duen gaitasuna agerian utziz.

Hala ere, arrakasta horiek bestelako errealitate batekin bizi dira sektorearen oinarrian. Ehunka dira eguneroko jardunean musika-ehuna sostengatzen duten talde eta artista txiki eta ertainak, eta askorentzat musikatik bizitzea oraindik ere erronka handia da. Sarreraren salmenta handitu den arren eta kontsumo digitalak gora egin duen arren, sektoreko eragile askok azpimarratzen dute hazkunde hori ez dela modu orekatuan banatzen eta dimentsio handiko proiektuetan pilatzeko joera duela.

Ikuspegi artistikotik, euskal eszenak bizitasun eta aniztasun handia erakusten jarraitzen du. Belaunaldi berriak panorama sortzailea zabaltzen ari dira, eta gero eta handiagoa da emakumeek gidatutako proiektuen presentzia, nahiz eta sektoreak berak aitortzen duen benetako berdintasuna lortzeko oraindik bidea egiteko dagoela.

### INDUSTRIA ETA EKOIZPENA: JARDUERA HANDIA ETA ZIURGABETASUN BATZUK

Diskogintzaren aldetik, Elkar diskoetxeko Andrés Camiok oro har urte ona izan dela baloratzen du 2025a. Kontsumo digitalak egonkortasuna mantendu du, eta formatu fisikoak ere portaera positiboa izan du, neurri batean azkenaldian

egindako ekoizpen batzuen maila altuak bultzatuta. Durangoko Azokak, esaterako, salmenta datu bereziki aipagarriak izan ditu berriro ere.

Musika-ekoizpenaren alorrean, beriz, Bidean Produksioakeko Julen Caminosek urte “oso aktiboa baina kezka batzuekin bizitakoa” bezala deskribatzen du. Bere esanetan, publikoa gero eta gehiago biltzen da ekitaldi handietan, eta horrek zaildu egiten du proiektu txiki eta ertainen bideragarritasuna. Horri gehitzen zaio aretoetan sarrerak saltzeko zailtasuna eta tamaina txiki eta ertaineko espazioen pixkanakako desagerpena; fenomeno horrek bereziki kezkatzen du hastapenetan dauden taldeen etorkizuna.

### KONTZERTU-ARETOAK: MUSIKAREN EKOSISTEMAREN ZUTABEA

Kontzertu-aretoen egoerak sektorearen gai nagusietako bat izaten jarraitzen du. Kultura Live elkarteko presidente Gotzon Uribe gogorarazten du aretoek egiten dituzten aldarrikapen nagusiak ia aldaketarik gabe mantentzen direla aurreko urteekin alderatuta.

Batetik, sektoreak administrazio publikoen laguntza ekonomiko zuzenak eskatzen ditu, bereziki aretoen programazioa eta ekipamenduak babesteko. Bestetik, areto pribatuak diru publikoarekin finantzaturako programazioen aurrean –auditorioak, pabilioiak, kanpoko espazioak edo ekitaldi handiak– bizi duten desoreka salatzen dute, programazio horiek gero eta ugariagoak baitira eta askotan zuzenean lehiatzen baitira haien jarduerarekin.

### MUSIKA GARAIIKIDEA: SORMENA ETA EGITURAZKO ERRONKAK

Musika garaikidearen eta konposizioaren eremuan ere positiboa izan da 2025eko balantzea jarduerari dago-kionez. Musikagileak elkarteko presidente Helga Ariasek urte “bereziki emankor eta dinamikoa” izan dela azpimarratzen du Euskal Herriko sorkuntza garaikidearentzat. Jaialdi, sorkuntza-gune eta kultur eragile askok lanerako gaitasun handia erakutsi dute, proposamen anitzekin eta berrikuntzarako borondate argiarekin.

Hala ere, jarduera maila altu horrek egiturazko erronka batzuk ere agerian uzten ditu. Horien artean daude publikoak zabaltzeko eta dibertsifikatzeko beharra, bitartekaritza kulturalako estrategien eta proiektu pedagogikoen bidez; gero eta konplexuagoak diren proposamen artistikoen

ekoizpen-kostuen igoera; eta aurrekontu mugatuaren tes-tuinguruan sortzen den tentsioa anbizio artistikoaren eta bideragarritasun ekonomikoaren artean.

Musikagileak elkarrekin, gainera, azpimarratzen du garrantzitsua dela finantzaketa eredu plurianualetara aurrera egitea eta sare-lana zein erakundearen arteko lankidetzaren indartzea, sektorearen jarraipena eta garapena bermatzeko.

### MUSIKARIEN ERREALITATEA

Musikari elkarteko Sara Azurzaren eta Marina Landaren arabera, baliabide ekonomikoaren faltak zaildu egiten du elkarrekin egitura bera sendotzea eta planteatutako helburu batzuk aurrera eramatea. Horregatik, funtsezkotzat jotzen dute Euskal Herriko musikariaren artean komunitate-sentimendua eta elkarrekin babesa indartzea.

Egiturazko ikuspegitik harago, musikariaren lan-egoerak industria-sektoreko beste esparru batzuetan beti ikusten ez den errealitatea erakusten du. Ezegonkortasuna eta prekaritatea ohikoak dira sorkuntza musikalarik lotutako pertsona askorentzat, eta horregatik sektoreak babes handiagoa eskatzen du kate osoaren oinarri sortzailea sostengatzen dutenentzat.

Bere esperientzia pertsonaletik abiatuta, Sara Azurzak adierazten du euskal musika-industria hedapen eta dibertsifikazio prozesu batean dagoela, baina aldi berean gero eta polarizazio handiagoa bizi duela. Makrokonzertuen

protagonismo gero eta handiagoak askotan itzalpean uzten ditu kontzertu txiki eta ertainak, eta horientzat ez dago nahikoa baliabide, espazio edo zirkuitu egonkorrik.

Antzeko gogoeta egiten du Ana Arsuaga musikariak (Verde Prato). Bere ibilbide artistikoa eta tokiko, estatuko zein nazioarteko sorkuntza eta lankidetzaren aukerak positiboki baloratzen dituen arren, ohartarazten du praktikan sektorea oraindik urrun dagoela bizitzaren profesional duina bermatuko duten baldintza ekonomikoak eskaintzetik. Bere ustez, musikariarekin askotan gertatzen da katearen "katebegi ahulena" izatea, industria osoa haien sormen-lanaren gainean eraikia egon arren.

### ETORKIZUNARI BEGIRA

2025eko balantzeak, beraz, irudi argia uzten du: euskal musika-sektorea sortzailea eta aktiboa da, eta eragin handiko proiektuak sortzeko gaitasuna du, baina aldi berean egiturazko desoreka garrantzitsuak arrastaka daramatza.

Datozen urteei begira, erronkak ere argiak dira: oinarri-sarea indartzea, kontzertu-aretoen eta formatu txiki eta ertaineko zirkuituen biziraupena bermatzea, musikariaren lan-baldintzak hobetzea eta finantzaketa eredu egonkorragoetara aurrera egitea. Azken batean, sektorearen hazkunde artistikoa egitura sendoekin laguntzea izango da etorkizuneko giltzarrietako bat, modu orekatuan eta epe luzera sostengatu ahal izateko.



# LANTALDEA

## Proiektuaren motorra



### ZUZENDARITZA

Taldearen buru **Iker Durana** da, Musika Bulegoako zuzendari kudeatzailea. Bere eginkizuna da taldearen lana koordinatzea eta, elkarteko gobernu organoekin batera, proiektuaren garapena gidatuko duten estrategiak definitzea, betiere sektorearekin harreman estuan.

[idurana@musikabulegoa.eus](mailto:idurana@musikabulegoa.eus)



### KOMUNIKAZIOA

Komunikazio saila **Ruth Manzanok** (arduraduna), **Andoni Clavok** (teknikaria) eta **Iratze Nabaridasek** (Ikus-entzunezko Komunikazioko ikaslea MUn) osatzen dute.

Haien lana da Musika Bulegoan gertatzen den guztiari ahotsa ematea: proiektuak, deialdiak, topaketak eta sektoreari lotutako ekimenak. Komunikazio estrategiatik hasi eta sare sozialetara edo hedabideekiko harremanetara, euskal musikaren berri gero eta urrunago iristea dute helburu.

[komunikazioa@musikabulegoa.eus](mailto:komunikazioa@musikabulegoa.eus)



### PROIEKTUAK ETA ZERBITZUAK

Proiektu eta zerbitzuen saila **Iñaki Egitegi**k koordinatzen du, **Areta Senosiain** eta **Arkaitz Villar** dira proiektuen arduradun teknikoak eta **Ane Sagredo** proiektu teknikaria.

Haiek dira Musika Bulegoak sustatzen dituen ekimen askori forma ematen dietenak: topaketa profesionalak, sektorearentzako laguntza programak, nazioartekotze ekintzak edo musika sektorearentzat aukera berriak sortzea helburu duten proiektuak.

[proiektuak@musikabulegoa.eus](mailto:proiektuak@musikabulegoa.eus)



### ADMINISTRAZIOA

Kudeaketa administratiboaren ardura **Itziar Alzibar**rek du. Aurrekontuak, kontratuak eta jarraipen ekonomikoa bere esku daude.

Bere lanari esker, eguneroko jarduna ordenean eta zorrotz kudeatzen da, eta gainerako taldekideek proiektuak eta jarduerak garatzera bideratu dezakete arreta, jakinda kontuak kontrolpean daudela.

[administrazioa@musikabulegoa.eus](mailto:administrazioa@musikabulegoa.eus)

# kulturklik

KULTUR AGENDA OSOA  
ATARI BAKAR BATEAN

MUSIKA ANTZERKIA DANTZA ZINEMA LITERATURA ARTEA JAJA...

BADUGU

PLANA

AURKITU  
EZAZU ZUREA



#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# 10 URTE BATZEN GAITUEN MUSIKAREN ALDE



**Hamarkada bateko ibilbidearen ondoren, Musika Bulegoak aro berri bati ekin dio, sektorearekin batera hazten eta etorkizunari begira.**

2025ean Musika Bulegoak hamar urte bete ditu. Hamarkada honetan, elkarrekin euskal musikaren sektorearekin batera egin du bidea, haren egituraketa indartzen lagunduz, eragileen arteko elkarlana sustatuz eta sektorearen errealitate egokituak kulturak politikak garatzen lagunduz.

Urteurren honek aukera eman du egindako ibilbidea aztertzeko eta etorkizunari begira sektoreak dituen erronkak partekatzeko. Azken hamarkadan musikaren ekosistemak aldaketa sakonak bizi izan ditu, digitalizazioak, globalizazioak edo pandemiaren ondorioek eraginda. Testuinguru horretan, egokitze gaitasuna funtsezkoa izan da sektorearentzat.

Maddi Aranak, Musika Bulegoako presidentea, azpimarratu duenez, elkarrekin sektorearen behar bati erantzuteko sortu zen: «Musika Bulegoa Eusko Jaurlaritzaren kultura-politiken barruan identifikatutako behar bati erantzuteko sortu zen. Hamarkada honetan sektorearekin batera hazi eta garatu gara, profesionalizazioa, aniztasuna eta musikaren lan-baldintzak hobetzea helburu hartuta».

Hamarkada honetan hainbat mugarri nabarmendu dira. Besteak beste, **Musika Bulegoa Sariak**, edizio guztien artean 1.200 parte-hartzaile baino gehiago bildu dituzte eta 70 proiektu musikal baino gehiago saritu. **BASQUE.MUSIC** ekimena, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin eta Etxepare Euskal Institutuarekin batera garatua, euskal musikaren nazioarteko presentzia indartzea; edo sektorearen beharrei erantzuten dieten politikak kulturalak sustatzeko, administrazio publikoekin egindako bitartekaritza lana ahalbidetzen dituen.

## **ETORKIZUNERA BEGIRA: IDENTITATE BERRIA**

Hamargarren urteurrenarekin batera, Musika Bulegoak barne-hausnarketa estrategikoa ere egin du. Komunikazio plan berriaren garapenean, elkarrekin bere posizionamendua, sektorearekiko harremanak eta etorkizuneko erronkak aztertzea.

Prozesu horren ondorioz, beharrezkotzat jo da elkarrekin nortasun bisuala eguneratzea, Musika Bulegoaren bilakaera eta egungo eginkizuna hobeto islatzeko. Iker Durana Zuzendari kudeatzaileak azaldu duenez, helburua aro berri baterako oinarriak sendotzea izan da: «Hamar urte hauek



*inflexio-puntua izatea nahi dugu. Gure erronka sektorearen erreferente izaten jarraitzea eta gure presentzia sendotzea da, betiere sektorea erdigunean jarriz eta musikaren errealitate berrietara egokituz».*

Hausnarketa horren emaitza izan da Musika Bulegoaren **irudi eta lema berria**. “**Batzen gaituena**” leloak elkarrearen funtsa laburbiltzen du: musikaren ekosistemako eragileak konektatzea, komunitatea indartzea eta sektore sendoago bat eraikitzen laguntzea.

Aro berri hau eta irudi berria **Bilbrocken egindako ekitaldi batean aurkeztu ziren**, ehun profesional baino gehiago bildu zituen topaketa batean. Sektoreko eragileak, erakundeetako ordezkariak eta urte hauetan Musika Bulegoaren ibilbidean bidelagun izan diren pertsonak elkartu ziren bertan.

Horrela, Musika Bulegoak hamar urteko ibilbidea ospatzeaz gain, etorkizunari begira duen konpromisoa berritu du: euskal musikaren sektorea batzen, indartzen eta laguntzen jarraitzea.



# MUSIKA BULEGOA 2025

# DATUETAN

Formakuntzak, jarduerak, erabiltzaile kopuruak eta beste lorpen batzuk

# +300

## BAZKIDE

KULTURA  
Live  
KULTURA

*me*

MUSIKA  
HOLPIAREN  
ELKARTEA

Musikagileak

MU-  
SI-  
KA-  
RI

+ PROFESIONAL  
INDEPENDIENTEAK  
PROFESIONALES INDEPENDIENTES

## KOMUNIKAZIOA



## SARE SOZIALAK (JARRAITZAILEAK)



## ZERBITZUAK eta PROIEKTUAK



**24**  
EKIMEN  
EZBERDIN  
(-1 \*)

**76**  
JARDUERA  
(+29 \*)



\* 2024 datuekin alderatuta

\*\* Komunikazio saila

\*\*\* Komunikazio saila Must Pro Gaztearekin

**10**  
AZOKETAN  
PRESENTZIA

### ANTOLATUTAKO JARDUERAK



# PLAN ESTRATEGIKO BERRIAK

## EUSKARA, BERDINTASUNA eta JASANGARRITASUNA




2025ean zehar, Musika Bulegoak urrats berriak eman zituen hiru ardatz nagusi indartuz: euskararen erabilera, berdintasuna eta jasangarritasuna. Horretarako, hainbat tresna eta plangintza estrategiko jarri ziren martxan, erakundearen eguneroko jardunean balio horiek modu sistematikoan txertatzeko.

Lehenik eta behin, Musika Bulegoak **Bai Euskarari** ziurtagiria lortu zuen. Aitortza honek erakundeak euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko egindako lana balioesten du, bai barne funtzionamenduan, bai komunikazioan eta sektorearekin zein herritarrekin duen harremanean. Ziurtagiri honek, beraz, euskararen aldeko egiturazko konpromisoa eta sendotzeko egindako ahalegina islatzen du.

Bestalde, BDCC (Basque District of Culture and Creativity) erakundearen laguntzarekin, Musika Bulegoak bere **Berdintasun Plana** landu zuen. Dokumentu honek erakundearen jardunean aukera-berdintasuna sustatzeko eta genero-ikuspegia modu sistematikoan txertatzeko lan-ildo nagusiak zehazten ditu, kultur sektorean lan-ingurune bidezkoago eta orekatuago baten alde egiteko helburuarekin.

Horrez gain, Bilbin Circular enpresaren aholkularitzarekin, **Jasangarritasun Plana** ere garatu zen. Musika Bulegoaren kudeaketa eta sustatzen dituen jardueretan, ingurumen-irizpideak eta erantzukizun soziala integratzeko oinarriak ezarri dira plan honen bidez.

Bai Euskarari ziurtagiria, Berdintasun Plana eta Jasangarritasun Plana Musika Bulegoaren webgunean daude eskuragarri. Hirurak, batera, erakundearen etorkizunerako lan-ildo nagusien parte dira, kultur sektorearen erronka berriekin bat datorren kudeaketa eredu arduratsuagoa sendotzeko bidean.



© John O Nolan

# KulturAraba Bulegoa



Arabako Kulturaren Bulegoa

La Oficina de la Cultura Alavesa

[www.kulturaraba.eus](http://www.kulturaraba.eus)



945 18 19 80

# TEJIENDO ALIANZAS PARA EL FUTURO DEL SECTOR MUSICAL

A lo largo de 2025, Musika Bulegoa reforzó su red de colaboración mediante la firma de varios acuerdos con instituciones académicas y agentes estratégicos del territorio. Estas alianzas buscan fortalecer los vínculos entre el ámbito profesional, el educativo y el desarrollo del ecosistema musical, impulsando nuevas oportunidades de formación, investigación e innovación.

## AGUSTINAK ZENTROA - AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

Musika Bulegoa firmó un acuerdo de colaboración con Agustinak Zentroa, impulsado por la Agencia de Desarrollo Oarsoaldea, con el objetivo de fomentar la profesionalización, la innovación y el emprendimiento en el ámbito musical. Este acuerdo permitirá desarrollar programas de asesoramiento y acompañamiento a proyectos musicales, así como actividades formativas, encuentros profesionales y programas de incubación y aceleración dirigidos al sector.

## EUNEIZ UNIVERSIDAD

Musika Bulegoa y la Universidad EUNEIZ firmaron un convenio de cooperación para estrechar la relación entre la universidad y el sector profesional de la música, especialmente en el ámbito del grado en Producción de Música y Sonido para la Industria del Entretenimiento (PMSIE). El acuerdo contempla iniciativas como prácticas académicas externas para el alumnado, colaboración en proyectos de investigación, participación en actividades organizadas por Musika Bulegoa y la realización de seminarios, talleres y clases magistrales impartidas por profesionales del sector.

## MONDRAGON UNIBERTSITATEA

La Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea y Musika Bulegoa establecieron también un marco de colaboración para impulsar la formación y la investigación en el ámbito cultural. El convenio prevé la participación de profesionales del sector musical en el nuevo grado en Industrias Culturales y Creativas, así como la posibilidad de que el alumnado realice prácticas y trabajos de fin de grado en la asociación. Asimismo, ambas entidades trabajarán conjuntamente en proyectos de investigación y en nuevas iniciativas vinculadas al sector cultural.



# Ezagutza partekatuz SEKTOREA INDARTZEN

Musika Bulegoak urtean zehar formakuntza eta web mintegiak antolatzen ditu, euskal musikaren sektoreko profesionali interesgarriak eta erabilgarriak diren gaiak lantzeko. Saio horien bidez, sektorearen eguneroko jardunean lagungarri izan daitezkeen ezagutzak, tresnak eta ikuspegiak partekatzen dira.

Helburua da eragileei informazioa eta baliabideak eskaintzea, musikaren sektorearen bilakaera ulertzen laguntzeko eta profesionalizazioa indartzen jarraitzeko.

## 2025an ANTOLATUTAKO JARDUERAK

### AHOLKULARITZA:

- Pizgarri Fiskalak Gipuzkoan Web-Mintegia: Otsailak 13
- Herramientas Para Programaciones Más Igualitarias: 11 de marzo
- Musika Jarduera Profesionalentzako Diru-Laguntzak Web-Mintegia: Apirilak 1
- Pizgarri Fiskalak Araban Web-Mintegia: Ekainak 11
- Kulturaren Sustapenerako Eta Banaketarako Dirulaguntzak: Musika Web-Mintegia: Uztailak 1
- Musika Eta Ingurumen-Jasangarritasuna: Uztailak 10
- Musika, Lirika eta Dantzarako Laguntzak 2025 Gida



### FORMAKUNTZAK:

- Amplify: 1. Sinposioa: urriak 13, 14, 15 eta 16
- Zinema-musikaren hastapenak (SGAE fundazioarekin batera antolatuta): azaroak 10, 11, 12 eta 13
- Sexu erasoaren aurkako protokoloa musika industriaren profesionalentzat (MIE elkartearekin batera antolatuta): azaroak 20an
- Jabetza intelektual, egile eskubideak eta adimen artifiziala (Galbaianekin batera antolatuta): abenduak 2



### NUEVO SERVICIO DE ASESORÍA PARA EL SECTOR MUSICAL

A finales de 2025, Musika Bulegoa ha puesto en marcha un nuevo servicio de asesoría dirigido a profesionales del sector musical. A través de una ventanilla virtual disponible en la página web de la asociación, cualquier persona interesada puede enviar consultas relacionadas con distintos ámbitos de la actividad musical.

Estas consultas se derivan al equipo de especialistas que colabora con Musika Bulegoa en materias como gestión, contratación, fiscalidad o desarrollo profesional. Desde su puesta en marcha, a finales de 2025, el servicio ha recibido ya 20 consultas.

# BADOK

Euskal musikaren apalategia,  
euskal musikaren fauna eta bizitegia;  
historiaren artxibategia eta  
berritasunen behatokia, bizi-bizia.

- *Murmur* musika podcasta
- Azken abestiak
- Erreproduzio zerrendak
- Elkarrizketak
- Kantok jolasa
- Buletina (bi astez behin)...



*Badok.eus*



# TOPAKETA PROFESIONALAK

## MUST +PRO, EUSKAL MUSIKAREN SEKTOREA- RENTZAKO LEHEN TOPAGUNE PROFESIONALA

Musika Bulegoak Must +PRO topagune profesionalaren lehen edizioa antolatu zuen 2025ean, Euskal Herriko musikaren ekosistemari zuzendutako hitzordu berria. Topaketa irailaren 30ean eta urriaren 1ean egin zen Tabakaleran (Donostia), eta 150 profesional akreditatu inguru bildu zituen.

Bi jardunalditan zehar, programak 23 jarduera eskaini zituen: 10 mahai-inguru, 2 hitzaldi, 9 showcase eta 2 podcast zuzenekoan, baita networking eta topaketarako guneak ere. Guztira, jarduerak 850 lagunetik gora bildu zituzten.

Must +PROren helburua Euskal Herriko musikaren sektorearentzat hausnarketa, formakuntza eta harremanetarako gune egonkor bat sortzea da, eta lehen edizio honek argi utzi du halako topaketa baten interesa eta beharra bazirela.

Programak sektorearen egungo erronka nagusietako batzuk jorratu zituen: adimen artifizialaren eragina sorkuntzan eta audientzian, proiektu musikalak nazioartekotzeko estrategiak, publiko berrien garapena, osasun emozionala edo pizgarri fiskalen etorrera kultur ekosistemara. Horrez gain, beste gai batzuk ere landu ziren, hala nola banaketa digitala, artisten komunikazioa edo areto eta espazio autogestionatuen kudeaketa.

Topaketak ikusgarritasuna ere eman zien proiektu artistikoei. Must +PRO Live egitarauaren barruan, 9 artistaren showcaseak aurkeztu ziren, deialdi ireki baten bidez hautatuak: Korrontzi, Femmm Vocal Jazz, Arima Soul, Habia, Sara Azurza, Xibe-roots, Jum! Eta Alatz, Andrea Santiago eta Mugan. Bestalde, Gaztearekin batera antolatutako podcast zuzenekoek, Yoko Ona eta Benetaz Zabiz? formatu hurbilago eta sortzaileagoa ekarri zioten programari.

Programaren osaeran ere sektorearen aniztasuna islatu zen: parte-hartzaileen artean %52 emakumeak eta %48 gizonak izan ziren.

Lehen edizio honekin, Must +PROk euskal musikaren sektorearentzako urteko topagune egonkor bilakatzeko bokazioa du, ezagutza partekatzeko, aukera berriak sortzeko eta musikaren ekosistemako eragileen arteko harremanak sendotzeko.

## DA! PRO MUSIKA

DA! PRO Durangoko Azokaren testuinguruan egiten den topaketa profesionala da, musikarien eta programatzaileen arteko harremanak sustatzeko sortua. Formatuak aurkezpen labur bat eta hamar minutuko showcase bat biltzen ditu, artistek beren proiektuak modu zuzenean aurkezteko eta programatzaileek proposamen berriak ezagutzeko aukera izan dezaten.





2025eko edizioan 19 proposamen jaso ziren, euskal musikaren aniztasuna agerian uzten dutenak: %47 pop-rock, %11 folk, %11 elektronika eta %21 beste estilo batzuetakoak. Proiektuen %74 euskarazkoak izan ziren, eta %53 emakumeek edo emakumeek gidatutako taldeek aurkeztu zituzten.

Azaroaren 26an egindako saioan, honako proiektu hauek aurkeztu ziren zuzenean: Sueder, Sara Zozaya, Gartxot, Jonkass, Hondora, Ilargi, Maialen Ibarra, Uxue Kerejeta, Euskal Barrok Ensemble eta Mainer.

### TOPAKETA PROFESIONALA SAREAKO PROGRAMATZAILEKIN

Musika Bulegoak eta SAREAK, Euskal Herriko Antzokien Sareak, urtero antolatzen duten topaketa profesionalak, musikarien eta antzokietako programatzaileen arteko harremanak sustatzea du helburu. Formatuak artista eta proiektuen aurkezpen laburrak uztartzen ditu, programatzaileekin harreman zuzena izateko aukera emanez.

2025eko apirilaren 2an, Elorrion, topaketaren zortzigarren edizioa egin zen. Saioan zehar, hainbat artistak beren proiektuak aurkeztu zituzten showcase formatuan, eta ondoren networking saio bat egin zen. Bertan, taldeek programatzaileekin mahai-inguru txikietan parte hartu zuten, proiektuak modu hurbilean aurkezteko eta elkarrizketa zuzena sustatzeko.

Pasadan urteko edizioan honako proiektu hauek aurkeztu ziren: Aldakan, Oiasso Kamerata, Arineketan, Petti, Mikel Azpiroz, Xak, Anixe, Harribitxi, Arima Soul eta Kiliki.



# SORKUNTZA

## OZEN i FORT: UNA NUEVA RESIDENCIA ARTÍSTICA ENTRE EUSKAL HERRIA Y CATALUNYA

En 2025 Musika Bulegoa impulsó, junto a Fabra i Coats – Fàbrica de Creació (Barcelona) la primera edición de Ozen i Fort, una residencia artística creada para fomentar la colaboración entre músicos de Euskal Herria y Catalunya.

La residencia reúne a dos artistas que trabajan conjuntamente en el desarrollo de una nueva pieza musical, compartiendo procesos creativos y explorando nuevas formas de colaboración. En esta primera edición, los proyectos seleccionados fueron Verde Prato (Euskadi) y Clara Aguilar (Catalunya).


El proceso de trabajo se desarrolló en Fabra i Coats – Fàbrica de Creació (Barcelona) y contó con el acompañamiento de diferentes agentes culturales implicados en el proyecto.

El primer resultado de esta colaboración se presentó en formato showcase en el Mercat de Música Viva de Vic, uno de los principales encuentros profesionales del sector musical a nivel estatal. El proceso ha finalizado el 5 de marzo de 2026 con el concierto final dentro del ciclo Fil\_In de Fabra i Coats.

Todo el proceso creativo ha sido recogido en un documental que muestra el desarrollo de la residencia y el trabajo conjunto entre ambas artistas.

## IPARHOTS EGONALDIA

2025ean, LUMI hautatua izan zen Iparhots egonaldi artistikoaren programan parte hartzeko. EKEk, Atabal aretoak, Kulturaz Kultur Kooperatibak, Bartzelonako Euskal Etxeak eta Musika Bulegoak sustatutako egitasmo honek Ipar Euskal Herriko sortzaileei proiektu berriak garatzeko espazioa eta laguntza eskaintzea du helburu.





ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



# Euskara. Kultura. Mundura.

Verde Prato - M Pour Montréal  
Argazkia: Charles-Antoine Marcotte, Etxepare Euskal Institutua



[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)

# ROAD MAP

Musika Bulegoaren helburuetako bat euskal musikaren nazioarteko presentzia indartzea da. **BASQUE.MUSIC.** plataformak, Eusko Jaurlaritzarekin eta Etxepare Institutuarekin elkarlanean egindako ekimenak, helburu nagusi gisa du Euskal Herriko sortzaileen komunitateari laguntza eta erraztasunak ematea, gure mugatik kanpoko merkatuetan proiektuak hedatzen eta sustatzen laguntzeko. 2025ean, honako merkatu hauetan parte hartu zuen **BASQUE.MUSIC.** plataformak:

Data	Ekimena	Herrialdea	Ekintzak
Urtarrilak 15-19	<b>Eurosonic</b>	Groninger (Herbeherak)	- Showcase: <b>EZEZEZ</b>
Martxoak 12-14	<b>Dantz Network Congress</b>	Donostia (Euskal Herria)	- Showcase: <b>Trigger, LaMia Mari, Ines, Mønet</b>
Maiatzak 6-9	<b>BIME Bogotá</b>	Bogota (Kolonbia)	- Showcase: <b>Ezpalak</b>
Maiatzak 12-15	<b>Classical Next</b>	Berlin (Alemania)	-
Irailak 17-22	<b>MMVV</b>	Vic (Katalunia)	- Pitch saioak - Showcase: <b>Verde Prato + Claraguilar</b>
Urriak 22-26	<b>Womex</b>	Tampere (Finlandia)	- Stand - Musika Katalogoa - Showcase: <b>Maite Larburu</b>
Urriak 28-31	<b>BIME Bilbao</b>	Bilbao (Euskal Herria)	- Stand - Latam - EH networking saioa - Showcase: <b>Txopet, Maloa Brothers, Marte Lasarte</b> - KEXP: <b>Merina Gris</b>
Azaroak 6-8	<b>Fira B!</b>	Palma de Mallorca	- Showcase: <b>Sara Azurza</b>
Azaroak 20-22	<b>Monkey Week</b>	El Puerto de Santamaria (Cádiz)	- Showcase: <b>Euskoprincess eta TOC</b>
Azaroak 18-21	<b>Mundial Montreal</b>	Montreal (Kanada)	- Showcase: <b>Verde Prato eta Olaia Inziarte</b>
Maiatzak 30- Ekainak 7	<b>ISCM</b>	Lisboa eta Oporto (Portugal)	- Showcase: <b>Maria Eugenia Luc</b>





**MANAGEMENT**

**KONTRATAZIOA**

**LIVE**

**LABEL**

**PUBLISHING**

**FINANTZAK ETA LEGEZKO KUDEAKETA**

**TICKETING**

**PRODUKZIOA**

**MERCHANDISING**

**KOMUNIKAZIOA**

**MERCH & ROLL**



**presst\_**



**PANDA RECORDS**

# MUSIKA BULEGOA SARIAK

## RECONOCIMIENTO ANUAL AL TALENTO DE LA MÚSICA VASCA



Los Premios Musika Bulegoa se han consolidado como uno de los principales espacios de reconocimiento para la creación musical en Euskal Herria. Cada año distinguen algunos de los proyectos más significativos del panorama musical vasco, reflejando la diversidad de estilos, trayectorias y sensibilidades que conviven en el sector.

En 2025 se celebró la novena edición de los premios en la sala Jimmy Jazz de Vitoria-Gasteiz, en un acto que reunió a representantes institucionales, profesionales del sector y numerosos agentes de la música vasca.

Un jurado formado por profesionales del ámbito musical analizó 190 proyectos publicados durante el último año y concedió ocho premios, sin jerarquía entre ellos, a los siguientes proyectos: Arinetan, Bloñ, Eneritz Furyak, Gorka Urbizu, Libe, Olatz Salvador, Soinuak Haizean y Verde Prato.

El Premio Etxepare de Música, que reconoce la proyección internacional de la música vasca, fue para Iزارo, por su

capacidad para llevar el euskera y la cultura vasca a nuevos públicos y territorios.

El Premio Honorífico EHMBE reconoció la trayectoria de Benito Lertxundi, figura fundamental de la música vasca durante más de seis décadas.

Por su parte, el Premio del Público, elegido mediante votación entre 30 proyectos finalistas, fue para Zabaldira Laukotea.

La gala, presentada por Nerea Reparaz y Julen Tellería, contó también con actuaciones en directo de varios de los proyectos premiados y con un concierto del grupo Izaki Gardenak, subrayando el valor de la música en vivo como espacio de encuentro para el sector.



# HOTS&HITZ:

## BERDINTASUNA MUSIKAREN ERDIGUNEAN

2025ean, Hots&Hitz jardunaldien hirugarren edizioak, Bilbo musikaren eta berdintasunaren espazio bihurtu zuen. Musika Bulegoak antolatutako ekimenak LGBTQ+ kolektiboaren presentzia eta inklusioa aldarrikatu zituen, sektorearen erronkei eta sormen askeari begira.

Jardunaldietan, artistak, programatzaileak eta profesionalak elkartu ziren eztabaida, mahai-inguru eta solasaldi ezberdinetan. Genero-oreka eta ikuspegi disidenteak lantzeaz gain, espazio seguruak eta programazio feminista nola sustatu aztertu ziren.

Parte hartu zutenen artean izan ziren La Furia, Lander Tellexea, Elena Gartzia, Amets Aznarez, Aner Peritz, Yogurinha Borova, Anaís Córdova-Páez, Leo Bueriberi, Laura Elordui, Miren Narbaiza, Kattalin Barcena eta DJ Ines. Haien testigantzek erakutsi zuten eszenatokia ez dela soilik musika egiteko tokia, baizik eta kultura eta identitate askotarikoak adierazteko espazioa.

Jardunaldiak, musikari eta publikoarentzat espazio libre eta segurua sortuz, berdintasunaren eta inklusioaren baliok praktikan ezarri zituen, musikaren sektorean aldaketak sustatzeko helburuarekin.



KUTXA  
FUNDA  
ZIOA

## Beti bizi dugulako musika

Kutxa Fundaziotik kultura bultzatzen dugu antolatzen diren jarduera eta ekitaldi ugari babestuz. Musika, antzerkia, zinea, bertsogintza...

Era guztietako kultur adierazpenak bultzatzea gure gizarte-konpromisoaren parte ere badelako.



# KANTHORIA eta AUTO-TUNEA: EUSKARAZKO MUSIKAREN HISTORIAN BIDAIA BAT



Musika Bulegoak, 10. urteurrena ospatzeko, Kanthoria eta Auto-tunea izeneko erakusketa ibiltaria aurkeztu zuen Bilbon. Xabier Erkiziak komisariatzen duen proiektua da, eta euskarazko musikaren historian bidaia bat proposatzen du: ahozko tradizioetatik hasi eta gaur egungo soinu digitalen eta esperimentalen sortzuneraino. Erakusketa Musika Bulegoak egiten duen lana kalera ateratzeko eta herritarrei euskarazko musikaren historia eta aniztasuna hurbiltzeko xedea du.

Erakusketa 2025eko azaroaren 6tik abenduaren 4ra egon zen ikusgai. Jarduera osagarri gisa, publikoari bisita gidatuak, mahai-inguruak eta musika-emanaldiak eskaini zitzaizkien, tartean zuzeneko musika saioak eskaini zituztelarik Belako, IbonRG eta Moxal taldeek.

Erakusketa gaur ere bizirik dago. Bederatzi panel tematikotan egituratuta dago, material dokumentalak, irudiak eta entzuteko gailuak konbinatuz, publikoak lehen erregistro fonografikoak, elektrifikazioa, sektorearen profesionalizazioa eta XXI. mendeko soinu berriak ezagutu ditzan. Kronologia bat baino gehiago, soinuaren eta hizkuntzaren irakurketa bizia da, denboran zehar elkar moldatu duten elementu gisa. Aurten, erakusketa Gasteizen, Donostian eta Iruñean aurkeztuko da.



get **in**

# MANAGEMENT MÁS DE TRES DÉCADAS PROMOTORA JAIALDIAK ORGANIZANDO LOS CONCIERTOS DE TUS ARTISTAS FAVORITOS EKTALDIAK

30 URTE BAINO GEHIAGO ZURE BIZITZARI SOINU-BANDA JARTZEN

ALEX DEL TORO · ALEX UBAGO · ARIEL ROT · BEBE · DEMARCO FLAMENCO  
ENOL · FRAN PEREA · FUNAMBULISTA · ISEO & DODOSOUND · IVÁN FERREIRO  
JOSE MERCÉ · KALENN · LA OREJA DE VAN GOGH · MAREN · MARIA JOSÉ LLERGO  
MARLON · MARTA SOTO · MÍA BERLIN · MIKEL ERENTXUN · NIL MOLINER  
PAUL ALONE · PICA-PICA · QUERIDO · RULO Y LA CONTRABANDA  
SUPERCREMALLERAS · TINEZ · TRAVIS BIRDS · VEINTIUNO · VICCO

**syntorama**

BUBA ESPINHO · ELEFThERIA ARVANITAKI · FEDERICO ALBANESE  
LEVI.SCT · LUDOVICO EINAUDI · MAITE LARBURU · MARIO BIONDI  
MARIZA · MATTIA VLAD MORLEO · NOA · OMAR FARUK TEKBILEK  
RIOPY · TONY ANN · VALÉRIE ÉKOUMÈ · WIM MERTENS

[www.getin.es](http://www.getin.es)



[syntorama.com](http://syntorama.com)



## MUSIKAREN EUROPAKO EGUNA: Podcastak Gaztearekin



Ekainaren 22an, Musikaren Europako Egunaren harira, Musika Bulegoak lehen aldiz bi podcast antolatu zituen Gaztearekin elkarlanean. Podcastetan sektoreko erronkak eta musikari, ekoizle eta publikoaren esperientziak aztertu ziren.

Lehen saioa, "Kontzertu handiak vs. txikiak: kontzertuak antolatzekeo erronkak", formatu ezberdinekin nola eragiten duten aztertu zuen. Bigarrena, "Gorputza lehen lerroan", musikari eta DJ zateak dakarren espazio fisiko eta emozionala jorratu zuen.

## SOINUA IRATZARRI: Musika garaikidea haurrei hurbiltzea



Musika Bulegoak, Musikagileak elkartarekin batera, Soinua Iratzarri proiektuaren VIII. edizioa jarri zuen abian. Proiektua 10 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, musika sortzeko prozesura hurbiltzeko eta musika garaikidearekiko sentsibiltatea sustatzeko.

2025ean, deialdi publiko bat egin zen parte-hartzaile izan diren ikastetxeak eta musikari, konpositore eta pedagogoak hautatzeko. 200 haur baino gehiagok beren piezak aurkeztu zuten Gasteizen, Amurrión, Donostian eta Portugaleten abenduan zehar, Vital Fundazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

## VILLASOUNDBILBAO: Marmitako Trap Banda premiada



En 2025, Marmitako Trap Banda recibió el premio Musika Bulegoa dentro del concurso VillaSoundBilbao. Gracias a este galardón, el grupo tuvo la oportunidad de tocar en una de las salas socias de Kultura Live, ofreciendo su concierto en Dabadaba, Donostia, el 8 de enero.

Los 10 grupos finalistas del festival participaron en cuatro sesiones de mentoría, una de ellas impartida por Musika Bulegoa. En esta edición, Mariell Sallaberry (Dabadaba Agency) ofreció orientación sobre contratación de conciertos, giras y management de grupos.

## ATLANTIKALDIA: Taller y festival en Errenteria



Del 18 al 21 de septiembre se celebró la XI edición de Atlantikaldia, festival y encuentro cultural celebrado en Errenteria centrado en la diversidad cultural y la colaboración entre disciplinas artísticas.

Gracias al acuerdo con el Ayuntamiento de Errenteria, Musika Bulegoa impartió un taller de creatividad musical en el Centro Cultural Niessen, con el objetivo de acercar la música a nuevos públicos y fomentar la sensibilización hacia la creación musical. Participaron 20 personas, principalmente niños y niñas, cumpliendo con uno de los objetivos estratégicos de la asociación: la colaboración y la formación.



Errenteriako Kultur  
agenda beti eskura

[kultura.errenteria.eus](http://kultura.errenteria.eus)

La agenda cultural de  
Errenteria en un clic



**K**ULTURA  
kreaktibo



ERRETERIA  
UDALA

# WU 2015 WU WU

BIZKAIA ROCK  
KANPUSA

[www.seneak.eus](http://www.seneak.eus)



# 2025eko KONTZERTUAK DATUETAN

Orrialde honek 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean EAEn programatutako musika jarduerari buruzko datuak ditu.

## Kontzertuak: Ekitaldiak, Prezioa eta Espazioa


**5.898**  
kontzertu  
**+% 2,4**  
2024ko datuekin alderatuta

2025an, EAEn egin diren 5.898 kontzertu jaso dira Kulturkliken. Ordainpeko kontzertuen batez besteko prezioa 16,7 eurokoa izan da. 2024an 15,6 eurokoa izan zen. Kontzertuen % 48,6 doan izan dira (% 48,5 2024an).

### Kontzertuen banaketa, prezioaren arabera

BATEZ BESTEKO PREZIOA	MEDIANA PREZIOA.	DOHAINIK
<b>16,7 €</b>	<b>13,5 €</b>	<b>48,6 %</b>
15,6 € 2024an	13,5 € 2024an	48,5 % 2024an

## Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera (%)



	2025eko Kontzertuak 100.000 biztanleko	2024ko Kontzertuak 100.000 biztanleko
Araba	272	251
Bizkaia	232	227
Gipuzkoa	321	322

Araba: % 15,5 | Bizkaia: % 45,2 | Gipuzkoa: % 39,3

Kulturkliken jasotako kontzertuen banaketa lurraldearen arabera aztertuta, kontzertu guztien % 45,2 Bizkaian izan dira, % 39,3 Gipuzkoan eta % 15,5 Araban.

Kontzertuen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatu, Gipuzkoa izan da 2024an kontzertu gehien programatu duen lurraldea: 321 ekitaldi 100.000 biztanleko.

## 3. taula: Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	2025eko Kontzertuak	2024ko Kontzertuak
Euskara	25,1	25,9
Gaztelania	18,8	19,7
Eleanitzak*	18,7	16,9
Hizkuntza gabe	17,1	17,8
Ingelesa	13,2	10,9
Beste Batzuk	1,7	0,9
Ezezaguna	5,3	8,0

\* Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek musika-ekitaldi beraren barruan emandako kontzertuak dira gehienbat.

Kontzertuen hizkuntzari dagokionez, euskara izan da hizkuntza erabiliena 2025an EAEn egindako musika-emanaldietan: kontzertuen % 25,1 euskaraz izan dira, gaztelaniazko kontzertuen (% 18,8) eta hizkuntza gabeko musika-emanaldien (% 17,1) aurretik.

Hainbat hizkuntzarako kontzertuak % 18,7

	2025eko Kontzertuak	2024ko Kontzertuak
<b>Musika Garaikidea</b> (Pop rock, kantu melodikoa, kantautorea, flamenkoa, musika latino, folk-a, jazz-a, elektronika, metal-a, rap-a, reggae...)	81,9	84,9
<b>Musika Klasikoa</b> (Orkestra sinfonikoa, ganbera musika, bakarlarik, abesbatzak, liriko, talde musika...)	18,1	16,0

Musika garaikideko emanaldiek izan dute presentzia handiena 2025ko kontzertuen agendan; guztien % 81,9 genero horretakoak izan dira.

## Kontzertuak Nafarroan


### Nafarroako musika-programazioaren azterketa (2025) Areto bakoitzeko kontzertu kopurua

Areto	Kontzertu Kopurua
Baluarte	102
Tótem aretoa	75
Navarra Arena	29
Sala Canalla	26
Indara	19
<b>GUZTIRA</b>	<b>251</b>


Baluarte da musika-jardueraren liderra ekitaldi kopuruari dagokionez, eta Totem aretoak jarraitzen dio; Navarra Arenan, berriz, kontzertu gutxiago daude, baina edukiera handiagoekin.

Talde kopurua Indaran: 21  
Talde kopurua Tótem Aretoan: 136


### Areto bakoitzeko kontzertu kopurua




### Baluarteko kontzertuen estilo musikalak




### Hizkuntzak Baluarteko kontzertuetan




### Estilo musikalak Navarra Arenan




### Hizkuntzak Navarra Arenako kontzertuetan



### Estilo musikalak Canalla Aretoko kontzertuetan



### Hizkuntzak Canalla Aretoko kontzertuetan



Informazio iturria: NMC/NICDO eta Totem aretoa

## Kontzertuak Ipar Euskal Herrian 2025an

Hilabetea	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	AGORRILA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
Kontzertu kopurua	15	16	37	42	42	57	81	62	46	42	45	34
<b>K O N T Z E R T U A K   G U Z T I R A :   5 1 9</b>												

Informazio Iturria: EKE (Euskal Kultura Erakundea)

# URTEKO MUGARRIAK



## DURANGOko AZOKA: 60 urte euskal kulturaren topagune

2025ean Durangoko Azokak 60 urte bete zituen, sei hamarkadatan euskal kulturaren —literaturaren, musikaren eta sormenaren— topagune nagusietako bat bihurturik. Abenduaren 5etik 8ra ospatutako edizioak, ZuNonHanDA! lelopean, inoiz baino gune, proposamen eta jarduera gehiago bildu zituen.

## IZAROk historia egin zuen “La Revuelta” saioan.



## ANTTON VALVERDE

Adarra Saria



El músico donostiarra Anton Valverde recibió el Adarra Saria 2025, reconocimiento a trayectorias destacadas en la música vasca. El jurado destacó su labor en la recuperación de canciones populares y bertsos tradicionales, así como su contribución a difundir la poesía vasca y a introducir el piano en la canción vasca moderna.


Izaro abeslari eta konpositoreak arrastoa utzi zuen “La Revuelta” saioan, ikuskizunean euskaraz aritu zen lehen artista izan baitzen. Mallabikoak emanaldi berezia eskaini zuen “Xorieri” kantuarekin, Baiuca ekoizle galiziarrekin batera ekoizitakoa eta euskal eta galiziar soinu tradizional bezala, txalaparta eta oinarri elektronikoak barne. Zuzeneko interpretazioaren taldea Valeria Castro, Garazi Esnaola eta Olatz Salvadorren abesbatzekin, Baiuca, Mikel Ugarte eta Harkaitz Martinezekin txalaparta eta albokarekin, eta koreografia Paula Martínez, Garazi Etxaburu, Jaiotz Osa eta Carlos Ojedarekin osatu zuten.

## **GORKA HERMOSA,** mejor composición para acordeón del año



El compositor y acordeonista Gorka Hermosa ganó el primer premio del International Composition Contest organizado por la Confederación Mundial del Acordeón (CMA), celebrado en Montargis (Francia), con su obra Sonata nº3 "Peace Dream". Con este galardón, Hermosa obtuvo por quinta vez el reconocimiento a la mejor composición del año para acordeón.

## **Fallece** **ROBE INIESTA**



El músico y poeta Robe Iniesta, líder de Extremoduro, falleció el 10 de diciembre de 2025 a los 63 años. Aunque nacido en Plasencia, mantuvo una estrecha relación con Euskal Herria: residió durante años en Bizkaia y colaboró con músicos vascos como Iñaki "Uoho" Antón o Fito Cabrales, además de participar en proyectos y colaboraciones con artistas del territorio.

## **BLOODY MARY** (Irun) 35 años impulsando la escena musical



La tienda de discos y promotora Bloody Mary, fundada en 1990 en Irun por Juancar García e Idoia Rodríguez, celebró en 2025 su 35º aniversario. Referente del circuito underground, el proyecto lo conmemoró con conciertos, giras y el festival Bolo-Bolo Weekend, reafirmando su papel en la difusión de nuevas bandas y en la defensa del formato físico.

## **ETSek** BEC bete zuen 20. urteurrena ospatzeko



En Tol Sarmiento (ETS) taldeak hiru kontzertu iragarri zituen Barakaldoko BECen bere 20. urteurrena ospatzeko, 20 urte Zure Eskutik lelopean. Sarrerak egun gutxitan agortu ziren, taldearen arrakasta eta euskarazko musikaren indarra agerian utziz.

# “AGUR ESAN BARIK”



© Arriguri



© Aritz Begipuntuan

2025. urteak mugimendu esanguratsuak utzi zituen euskal musika eszenan, garaia markatu duten taldeen agurrekin eta jarraitzaile askoren nostalgia piztu duten itzulerekin.

Adiorik sonatuenetako bat **Gatibu** taldearena izan da. Gernikako taldeak 25 urteko ibilbideari amaiera ematea erabaki zuen, euskarazko rockaren azken hamarkadetakako erreferente nagusietako bat bihurtu ondoren. Ia 800 kontzertu eskaini eta belaunaldi askoren soinu banda izan ostean, 2025eko abenduan Barakaldoko BECen eskainitako kontzertu bereziekin agur esan zien entzuleei.

**Esne Beltza** taldeak ere agur esan zuen bi hamarkadako ibilbidearen ondoren. Mestizaje musikalaren erreferente nagusietako bat izan da Euskal Herrian, reggae, ska, hip-hop eta euskal doinuak uztartuz. Agurren zerrendara batu zen **Chill Mafia** ere: Nafarroako kolektiboak azken urteotan euskarazko musika urbanoan eragin handia izan du, estilo propio eta belaunaldi oso baten ahotsa bihurturik.

Baina 2025 ez zen bakarrik agurren urtea izan. Espero ziren itzulera batzuk ere ekarri zituen. Horien artean dago **Latzen** heavy taldea, 1990eko hamarkadan metal eszenan arrastoa utzi zuena eta urte askoren ondoren berriro oholtzara itzuli dena, material berriarekin gainera.

Ilde beretik, **Bizardunak** talde nafarra *Hasta que nos canceléis* birarekin itzuli zen agertokietara. Desegin eta hamarkada bat baino gehiago igaro ondoren, “euskal folk erradikal” berezia berreskuratuz, irlandar musika, punk jarrera eta ironia politikoz beteriko letrak nahastuz.

Horrela, 2025eko panorama musikalak etengabeko errelebo irudia utzi zuen: proiektu historiko batzuek zikloa ixten zuten bitartean, beste batzuek eszenatokien gaineko espazioa berreskuratzen zuten, euskal eszena etengabe aldatzen ari dela gogoraraziz.



© Haitian Olhagaray

## Orona, kulturarekin bat.

Distantziak laburtuz,  
pertsonak gerturatzen ditugu.

[orona.eus](https://orona.eus)



# INCENTIVOS FISCALES Y CULTURA EN EUSKADI:

## DE LA AYUDA AL CAMBIO DE ESCALA



© Yvette De Wit

**Durante años, hablar de financiación cultural en Euskadi —y especialmente en el ámbito de las artes en vivo— ha sido casi sinónimo de subvención pública, precariedad estructural y proyectos sostenidos más por vocación que por modelo. Sin embargo, algo está cambiando. Y no es menor.**

En el año 2021, en plena época pospandémica, en el sector de las artes en vivo (escénicas y música) apareció una nueva palabra que hasta entonces era totalmente desconocida para nosotras: crédito fiscal/Incentivos fiscales. La ley del impuesto de sociedades de territorio común, es decir, el territorio del estado sometido a la hacienda estatal incluyó ese año una modificación del artículo 64 bis por el que extendía a los espectáculos en vivo la figura de los incentivos fiscales que hasta entonces habían estado vigentes en el sector del I+D+i y del audiovisual.

Las asociaciones sectoriales de Euskadi conocimos esta nueva figura a través de las federaciones estatales de las que formamos parte ya que las haciendas forales, con competencia exclusiva en la regulación del impuesto de

sociedades, todavía no habían trasladado dicha figura a nuestra normativa. Finalmente, el 1 de enero de 2023 la hacienda de Bizkaia fue la primera en aprobar una nueva ley que incluía a las artes en vivo y después vinieron las de Araba y Gipuzkoa a partir del 1 de enero de 2024.

Tuvimos claro que la irrupción de los incentivos fiscales para el fomento de la cultura era estratégica y abría una nueva etapa: una en la que la cultura deja de ser solo gasto o política pública para convertirse también en una oportunidad de inversión, de colaboración y de crecimiento real.

Hasta ahora, estos instrumentos se han explicado muchas veces desde lo técnico: porcentajes de deducción, requisitos, certificaciones... Pero quizá la clave no esté tanto en el “qué son” como en el “para qué sirven” si se activan con una visión estratégica de que constituyen una nueva fuente de financiación que puede llegar a ampliar la capacidad de inversión de nuestras, en muchos casos, debilitadas estructuras.

Porque, en esencia, lo que permiten es algo muy potente: convertir proyectos culturales en vehículos atractivos para la inversión privada.

En el caso de Euskadi, hablamos de deducciones que pueden alcanzar el 30% en artes escénicas y música en vivo –y hasta el 40% si el proyecto es en euskera–. Más allá de la cifra concreta, el mensaje es claro: el riesgo económico de invertir en cultura se reduce drásticamente.

Y cuando el riesgo baja, pasan cosas.

### DE LA SUPERVIVENCIA A LA AMBICIÓN

Uno de los grandes impactos potenciales para el sector de los espectáculos en vivo es el cambio de mentalidad. Tradicionalmente, muchos proyectos se han diseñado en función de lo que podían permitirse, no de lo que querían ser. Los incentivos fiscales permiten invertir esa lógica.

Si una parte del presupuesto puede recuperarse vía fiscal, se abre la puerta a producciones más ambiciosas: giras mejor planificadas, espectáculos con mayor desarrollo técnico, estrategias de comunicación más sólidas o incluso procesos creativos más largos y cuidados.

No es solo hacer más, sino hacerlo mejor.

### ATRAER INVERSIÓN (DE VERDAD)

Otra de las palancas clave es la capacidad de atraer capital externo a través de la monetización de las deducciones generadas y que las productoras no se han aplicado. Los incentivos fiscales no están pensados únicamente para el propio sector, sino para conectar la cultura con otros agentes económicos: empresas, inversores, profesionales liberales.

De hecho, el sistema permite que tanto empresas como particulares (solo en Araba y Bizkaia) participen en la financiación de proyectos culturales obteniendo beneficios fiscales a cambio. Esto cambia radicalmente el tablero: la cultura deja de depender exclusivamente de recursos públicos o taquilla y empieza a dialogar con el mundo empresarial en términos de retorno.

En Eskena, la asociación de productoras escénicas de Euskadi, ofrecemos un servicio de acompañamiento en el tema de incentivos fiscales cuyo contenido comprende por un lado el asesoramiento en la gestión documental y contable previa y por otro la intermediación en la búsqueda de financiadores.

En la siguiente tabla exponemos la evolución entre los años 2024 y 2025 en lo referente a proyectos financiados, contratos suscritos, productoras beneficiarias, financiación y número de financiadores, únicamente circunscrito al servicio ofrecido desde la asociación.

Año	Proyectos	Productoras	Contratos	Financiación	Financiadores
2024	4	3	6	66.000 €	5
2025	29	8	33	381.840 €	20



© Angie Baongoc

Está claro que esta herramienta fiscal es conocida cada vez por más inversores y que se ha ido generando confianza en dichas empresas en el sentido de que invertir en cultura es seguro, aporta beneficios y favorece la creación cultural del territorio.

### PROFESIONALIZAR PARA ESCALAR

Pero estos instrumentos no funcionan en automático. Exigen algo que, en realidad, puede ser una de sus mayores virtudes: profesionalización.

Para acceder a ellos hay que estructurar proyectos, justificar costes, planificar inversiones, generar seguridad jurídica. En otras palabras, obligan a ordenar el sector.

Esto puede parecer una barrera, pero es también una oportunidad. Porque esa misma estructura es la que permite crecer, replicar modelos y generar confianza en inversores y colaboradores.

En un ecosistema donde muchas iniciativas siguen siendo frágiles o dependientes de personas concretas, avanzar hacia estructuras más sólidas puede marcar la diferencia entre proyectos que sobreviven y proyectos que perduran.

### TEJER ALIANZAS NUEVAS

Quizá uno de los cambios más interesantes sea el relacional. Los incentivos fiscales fomentan un tipo de colaboración que hasta ahora no era habitual: alianzas entre agentes culturales y agentes económicos.



© Sean Lee

Promotores musicales colaborando con empresas industriales. Festivales conectando con inversores locales. Salas generando proyectos financiados de forma híbrida. Incluso artistas participando en estructuras más complejas.

Este tipo de alianzas no solo aportan financiación, sino también conocimiento, redes y nuevas formas de pensar los proyectos.

#### EL RETO: ACTIVARLOS CON VISIÓN

Los incentivos fiscales no son una solución mágica y las haciendas forales ya están empezando a lanzar el mensaje de que probablemente no se quedarán aquí para siempre.

Como se trata de ayudas de estado que requieren autorización de la UE, dicha autorización de momento estará vigente hasta el 31 de diciembre de 2028. Después las haciendas deberán volver a solicitarla por otro periodo de 6 años u otro que se establezca.

Son una herramienta más que, en ningún caso, debe sustituir otras herramientas de financiación pública ya existentes pero las estructuras culturales debemos aprovechar esta ventana que se nos ha abierto para reforzar nuestra capacidad de reinversión en nuevos proyectos.

El riesgo es que queden limitados a unos pocos proyectos, o que se perciban como algo complejo y lejano. La oportunidad, en cambio, es construir una estrategia compartida: sector, instituciones y agentes económicos alineados para aprovechar este marco.

Pasar de un ecosistema cultural que resiste... a uno que tiene posibilidades de crecer.

Y ahí, la música en vivo en Euskadi tiene mucho que decir.

Amaia Ibañez



GRABAZIOAK • NAHASKETAK • MASTERIZAZIOA  
PRODUKZIOA • DOBLY ATMOS • SOINU BANDAK



# La música también es una empresa que hay que gestionar<sup>®</sup>

Contratos, impuestos, royalties,  
derechos, incentivos fiscales...

**SFTL<sup>®</sup>** Sympathy  
for the Lawyer

**incentiva** Music





# GURE JENDEA, GURE KULTURA

Bihotza gure lurrian eta arima munduari zabalik. Horrelaxe babesten dugu geurea. Izan ere, norik bere burua ezagutzuz eta estimatuz soilik ezagutu eta estima ditzake besteak.

Horregatik, zuri esker, atea zabaltzen ditugu egunero, gure lanaren bidez kulturari eta garen bezalakoak izanarazten gaituen jendeari laguntzeko, eta, pausoz pauso, banku kooperatiboa garen aldetik, gure helburua betetzeko: gizarte bidezkoagoa, irekiagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzea, tokikoa eta unibertsala eskutik doazen mundu batean.

**Bada beste modu bat.**




**LABORAL**  
kutxa

K  
BUL  
EGO  
A

Kulturari  
adi

Atención  
a la cultura



## Zerbitzuak / Servicios

### Bidelaguntza /Acompañamiento

Kultura proiektuak garatzeko aholkularitza zerbitzua da.

Servicio de asesoramiento para el desarrollo de proyectos culturales.

### Formakuntza /Formación

Prestakuntza jarduerak eta partekatutako esperientziak, antolatzen dira.

Se organizan actividades de formación y experiencias compartidas.

### Kontsultak /Consultas

Bulegora hurbilduz, telefonoz deituz edo mezu elektronikoko bat bidaliz.

Acercándote a la oficina, llamando por teléfono o enviando un correo.

### Kontaktua/Contacto

943 11 33 43

[kbulegoa@gipuzkoa.eus](mailto:kbulegoa@gipuzkoa.eus)

### Kokapena /Ubicación

Santa Teresa komentua

[Elbira Zipitria 1](#)

[20003 Donostia/ San](#)

[Sebastián](#)

K  
BUL  
EGO  
A



**K bulegoa**, Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA)

Kultura sektorearentzako arreta zerbitzua.

**K bulegoa**, servicio de atención al sector Cultural de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

# 2025<sub>eko</sub> UZTATIK 10 ALTXOR

Euskal musika eszenak proposamen amaigabeen iturri izaten jarraitzen du, soinu tradizionalagoetan oinarritzen diren proiektuetatik abangoardistenetara edo esperimentalagoetara bitartekoa.

Hona hemen horietako batzuen lagin txiki bat: hamar diskoren hautaketa bat, gaur egungo gure sortzaileen sormena eta aniztasuna agerian uzten duena.

Iker Bárbara



## Ezezez - "Kabakriba"

Bilboko laukotea gure eszenako azken urteetako proposamen magnetiko eta bizienetako bat bihurtu da. Hirugarren diskoan, bere soinu-unibertso propioa eraikitzen jarraitzen du, etiketarik gabe, estiloak nahastuz eta sormen-askatasun osoz, etengabe esperimentaziora irekita. Erritmo hipnotikoek eta giro ilun eta erakargarriek protagonismo handia dute, testu landuekin uztartuz.



## Merina Gris - "Zuloa"

Donostiako hirukote maskaradunak soberan gairitu du bere bigarren diskoaren erronka, eta berriro ere erakutsi du unibertso sendo eta aberatsak sortzeko duen gaitasuna; gainera, lehen disko basatiaren aldean, heldutasuna nabarmentzen da. Esperimentazioa eta kontzientzia soziala uztartzen dira, guztiak elektronika erritmopean.



## Niña Coyote Eta Chico Tornado - "Atea"

Aurreko abenturaren ondoren, cumbiaren erritmoetan murgildu zirenean, Ursula "Strong" eta Koldo Soret-ek osatutako power bikoteak berriro ere disko bat aurkezten du, oraingoan %100ean euren ohiko riff indartsu eta burrunbatsuetan oinarritua. Stoner-aren dentsitateak eta punkaren haserre gordinetik abiatuta, post-punkaren eta glam-rockaren giro ilun eta argitsuetan barrena gidatzen gaituzte, egungo gizarteak bizi duen egoera tamalgarría jorratuz.



## Maite Larburu - "Maizter"

Maitek bere proposamenari ukitu pertsonal eta berezia ematea lortu du. Abiapuntua kantautoreen folk klasikoa bada ere, esperimentazioari esker bide zirrarragarriagoetara zabaltzen da, mundu tradizionala eta abangoardiakoa uztartuz. Bosgarren disko eder honek instrumentazio akustikoa eta elektronikoa nahasten ditu, ahotsekin, koruekin, soinu organikoekin eta landa zein hiriko zaratekin batera, entzuleari unibertso aberats eta bizia eskainiz.




**Verde Prato - "Bizitza ezitia"**

Ana Arsuagak bere unibertso gozoan barrena egiteko beste bidaia bat eskaintzen digu. Lana delikatu eta intimoa da, baina aldi berean mezu indartsu eta aldarrikatzailea dauka. Italiako "dolce vita"-ri egindako keinua barne, diskoa Erroman grabatu du Donatto Dozzy musika elektronikoaren ekoizlearekin. Aurreko lanekin alderatuta, sinpletasunetik abiatuta soinu konplexuagoetara iristen den fusio mamitsu eta erakargarria da.




**Silitia - "Mirari orok tapatzen zauria"**

Bizkaiko taldea bere berezitasunagatik nabarmentzen den proposamen gazte eta berrietako bat da, genero-mugarik ulertzen ez duen soinu-unibertso zabal batean mugitzen dena. Ibai eta Xabik azken bost urteotan garatu duten proiektuak jauzi nabarmena eman du bere bigarren diskoarekin, originaltasunean haziz; gainera, zuzenekoetan ere indartu da, bikotetik laukote izatera pasatuz.



**Gorka Urbizu - "Bakan I & II"**

Nafarroako musikariak 2025ean bi lan txiki baina mamitsu eskaini dizkigu, bakarkako lehen diskoak izan zuen oihartzun handiaren ondoren. Bi EPak oso egoera desberdinetan grabatu ditu: lehenengoa, animoa lur jota zuela; eta bigarrena, kapritxo modura, Abbey Road estudio historikoetan. "Gutxiago gehiago da" premisari eutsiz, hunkitzeko duen erraztasunak gorenean jarraitzen du.



**Gailu - "Bizi eta Ixo!!"**

Andoaingo hirukotea gure eszenako proposamen ausart eta interesgarrienetako bat da. Okene eta Mikel anaiek, eta Drakek ibilbide ikusgarria dute (Negu Gorriak, BAP!, Inoren Ero Ni, Anari...), horregaitik ergelkeriak alde batera utzi eta konplexurik gabe, gutxik ausartuko lirakeen –eta are gutxiagok lortuko luketen– bideak jorratzen dituzte: post-punka, spoken word-a, hardcorea eta elektronika uztartzen dituzte ikuspegi garaikide batetik.



**Olaia Inziarte - "Zerrautsa"**

Debut mamitsua egin eta bi urtera, Olaiak bigarren diskoa kaleratzearekin poztu zigun iazko urte hasiera. Tradizioaren eta modernitatearen artean segurtasun eta talentu handiz mugitzen diren kantautore gazteen belaunaldi berriaren adibide bikaina da. Nafarroako artistak ez dio beldurrik estilo eta soinu mota guztiekin jolasteari, baina beti modu zintzo eta hunkigarrian.



**Mirua - "Miruenea"**

Mirua hirukotearen debut ederra dugu honakoa; txikitatik etxean bizi izan duten musika tradizionala gaur egungo joera musikaletara hurbiltzen dute. Folk berrasmatzeko modu original eta talentuduna eskaintzen dute, pop doinu ederrez aberastuta. Horri esker, etorkizuneko soinu-nabe batean iraganera eramaten zaituzte bidaia goxo eta aberats batean.

# MITOAROA

## EDO EUSKAL MUSIKAREN ARO BERRIA



© Ruido 98

Zalantzarik gabe esan dezaket joan den irailean euskal banda batek egin duen ikuskizun berezienean egon nintzela. Edo hobeto esanda, horren parte izan nintzela. Pello Reparaz buru duen Zetak taldeak Illunbe hiru aldiz bete zuen udaren amaieran Mitoaroa izeneko saioaren bigarren edizioan. Ez zen kontzertu arrunta izan, ez ginen ikusleak bakarrik izan. Esperientzia kolektibo baten parte izan ginen, bai artisten eta bai eserlekuetan edo pistan geunden guztiok.

Musikalaren antza duen 'show' bat sortu du Reparazek eta Navarra Arenan lehenengo kapitulua aurkeztu eta gero, jarraipena plazaratu zuen Donostian. Eboluzioa. Kapitulu berria, planteamendu desberdina, baina, batez ere, aurrerapausoa. Gidoia, errepertorioa, gonbidatuak, eszenografia... dena aldatu zuten. Hobetu. Mitologia eta Zetaken abestiak hortxe egon ziren, baina kontzeptua aldatu zen. Palestina librea aldarrikatu zuten, Donostiaren kultura eskaintza zalantzan jarri zuten eta heriotzari buruz ere aritu ziren. Eszenatokia eta Illunbe plazaren inguruan gertatutako guztia zaleok aurikularrei esker entzun genuen. Soinu bikaina iristen zen, oztoporik gabe. Gainera, 'kanpoan' ezer ez entzuteak mugikorrei aurre egitea lortu zuen. Poltsikoetan egon ziren ikuskizun osoan; baten batek argazki arinaren bat atera zuen, baina besterik ez. Oroitzapen txiki bat.

Mitoaroaen hirugarren atala ekainean ikusiko dugu Athleten San Mamés zelaian. Hori bai aurrerapausoa. Artista

euskaldun batek eman duen kontzerturik handiena izango da. Mitoaroa III 2084 urtean kokatuko da, gizarte distopikoan. Berriz ere, kontakizun berria, pertsonai, janzkera eta eszenografia berriak, dena Zetaken errepertorioa abiapuntu hartuta. Gainera, minututan futbolaren 'Katedralaren' sarrera guztiak agortu eta gero, bigarren data atera zuen. Beraz, birritan beteko du proiektuak Euskal Herriko zelairik handiena.

Argi eta garbi izan dut beti Pello Reparaz oso pertsona azkarra dela. Vendetta garaian ondo jokatu zuen, baina are nabarmenagoa da Zetak proiektu elektronikoa garatzea erabaki zuenetik. Arrakasta 'erosoari', proiektu sendo eta finkatuari agur esatea erabaki zuen benetan nahi edo momentu hartan behar zuen musika sortzearen. Londresen ikasi zuen, skatik elektronikara pasatu zen, ia bere abesti berriak estreinatu bezain pronto pandemia heldu zen... Baina azkenean dena ondo baino hobeto atera egin dela ukazina da.

Gauzak patxadaz egitea gustatzen zaio Reparazi. Hausnarketa sakonak egiten ditu. Ez dauka presarik. Arrazorik ez pentsatzeko denbora pixka bat eskatu behar badu. Arriskuak hartzen ditu ere, noski, eta askotan gainera. Zetak proiektua beraren sorrera arriskua hartzea izan zen. Kalitatea begi bistan zegoen, baina entzuleekin konektatzea lortzen ez bazuen, zer? Diru inbertsioa, esfortzua, kanpoan ikasten emandako denbora... Ahalegina handia izan zen. Baina agian hori da arrakastaren sekretua. Kuraia. Ausardiak saria dakar askotan.



Kontzertu handia baina arrunta egiteko aukera zeukan. Milaka pertsonen aurrean jo, errepertorioan publikoaren abestirik gustokoenak sartu, eszenografia landu, gonbidaturen bat izan... Ikuskizun berezia ere egiteko aukera zegoen, baina haratago joan zen Mitoaroa sortzen, eta data bakar batzuetarako gainera. Dirutza bueltan jasotzeko aukera emango zion birarik egin gabe. Baina hala da bera, burua haustea gustatzen zaio ikuskizunaren alde. Urrunago joatzeak ematen duen adrenalina gozaten. Mitoaroa kontzeptuari Zeid Fest ekitaldia gaineratu behar diogu. Jaialdi bat martxan jarri zuen BEC-en eta laugarren ediziorako euskal sustraiak dituen Crystal Fighters nazioarteko taldea ekarri zuen.

Duela ez hainbeste urte euskarak atek ixten zituela uste genuen. Pentsamendu orokorra zen hori. Baita euskaldunon artean ere. Agian, batez ere, euskaldunon artean. Gure mezua gure hizkuntzan hedatzeko arazoak zeudela uste genuen. Ez zela nahibeste hedatzen. Ez zela heltzen. Hiztunentzat baino ez zela. Zorionez, azken garai honetan, eta besteak beste, Mitoaroa bezalako ekintzei esker, pentsaera hori aldatzen ari gara. Oztopo mental horiek apurtu egin ditugu. Izaro, Berri Txarrak, Gatibu, ETS eta Fermin Muguruza bezalako artistek begibistan jarri dute euskal musikak areto erraldoiak ere betetzeko gaitasuna daukala. Ere horiek ez dira bakarrik nazioarteko artistentzat. Nahiz eta, hori bai, arrakasta futbol zelaiak bakarrik betetzea ez izan, aretoetan entzulekin konektatzea ere bada, sentimenduak abestietan islatzea, emozioak sentiaraztea.

Mitoaroa bezalako helburua martxan jartzeko dirua behar da, noski. Baina konfiantza ere. Apostua egitea. Gure mugetatik kanpo egiten bada, zergatik ez hemen gure hizkuntzarekin?

Zetak handiaz pentsatzearen emaitza da, posible dela sines-tea. Izan ere, behin baino gehiagotan galdetu diote Pello Reparazi zergatik ez du ingelesez konposatzen, bere abestiak gehiago zabalduko zirelakoan. Konpromisoagatik, hasteko, bere ama hizkuntza delako eta. Baina atek itxi beharrean, irekitzen dituela zihurtatzen du. Izan ere, abenduaren 3an, euskararen egunean bertan TVEko 'La Revuelta' David Broncano aurkezleari erreflexio interesgarria egin zion. San Mameserako sarrera ugari saldu zituztela aipatu zuenean, horren zergatia euskara bera zela esan zion. Arrazoia topatzen saiatu zela behin eta berriz, eta azkenean ondorio horretara iritsi zela. Euskal kulturak batuko gaitu ekainean futbol zelai batean bi gauetan jarraian.

Komedia, drama, tradizioa, antzezpena, ikusgarritasuna, soinu bikaina, berrikuntza, abestietatik sortutako gidoia, gonbidatu bikainak... Horiek izan dira Mitoaroa IIren osagai nagusiak. Urtarrilean Iruñean egindako ekitaldia aldatu, hobetu eta handitu egin dute eta ziur gauza bera gertatuko dela datorren ekainean San Mamesen. Izan ere, gutxi gorabehera bi urte baino gehiago daramatza Pello Reparazek bere taldearekin proiektuaren hiru atalak sortzen eta xehetasun guztiak lantzen. 2024aren udaberrian entzun genuen lehen aldiz Nafarroa Arenaren ikuskizunaren berri eta ekainean, orain arte pentsatzeak ere zorabioa ematen zuena gauzatuko da. Zetaken ametsa, gure hizkuntza maite dugunon ametsa. Helburu kolektiboa. Erronka erraldoia da, baina saria are handiagoa izango da. Dozenaka mila ezdarri xede berdinarekin.

Silvia Cantera



**GRADUA**  
**KULTUR ETA SORMEN INDUSTRIAK**  
MODA / MUSIKA / ARTE BISUALAK

**MASTERRA**  
**EUSKAL KULTURAREN ERAGILETZAN**

[www.mondragon.edu/ksi](http://www.mondragon.edu/ksi)

[www.mondragon.edu/eke](http://www.mondragon.edu/eke)

**Mondragon Unibertsitatea**  
Humanitate eta Hizkuntza Zientzien Fakultatea

# VITORIA-GASTEIZ

## *kulturaren hiria*



[www.vitoria-gasteiz.org/cultura](http://www.vitoria-gasteiz.org/cultura)



[www.instagram.com/vg\\_kultura](https://www.instagram.com/vg_kultura)



[www.facebook.com/VGkultura](https://www.facebook.com/VGkultura)



[x.com/VG\\_Kultura](https://x.com/VG_Kultura)



*Gehien gustatzen zaizkidan  
audio-edukiak plataforma  
bakar batean?*

**guau**  
gure audioa

*Euskal audio-edukien doako plataforma*



Consíguelo en el  
App Store

DISPONIBLE EN  
Google Play



Deskargatu orain  
edo sartu [guau.eus](https://www.guau.eus)-en



© Markus Winkler

Seigarren mailan nengoela, bazen mutil bat gure gelan, Oihan deituko diot hemen. Ume guztiek inertziaz jarraitzen zuten Oihan, karisma zeukalako. Garaian karisma zelakoan geunden, gaur egun manipulatzaila hutsa deituko genioke. Denak gobernatzen zituen eta bera alde guztietara segitzea lortzen zuen. Aski zuen ongi esandako lau gauza asmatu, gehienek erabat ulertzen ez zutenak, bere eskudroi justiziariekin bat egin zezaten. Andereñoaren belarrietara iristeko bezain bortitza ez bazen ere, estortzioa egiten zien bere urtebetetzera ez gonbidatzearen mehatxuarekin edo atsedelاندiko futbol partiduan parte hartzen debekatuz. Noizean behin dirua ere eskatzen zien, ordaindu ezean zortzigarren mailakoek astindua emango zietela esanez. Gero, zortzigarren mailakoei dirua eman eta horrela eskolako patioan estatusa irabazten zuen, nagusien laguna zelako. Hortaz, nork bere arimak saltzen zion artaldean ikusezin eta onartuta irautearren.

Inork ez zuen Oihan jasaten baina gehienek jarraitzen zuten, zeren hori egin ezean bakarrik geratzen baitziren, haien autoestimua elikatzen zuen ekosistema sozialetik isolatuta. Nik ez nuen Oihan jarraitzen; umiliazio eta irainei bi urtez eutsi nien beste hiru friki sendorekin batera, eskerrak elkar laguntzen genuela...

O.H.O amaitu bezain laster askatu eta beste ikastetxe batetara alde egin nuen B.U.P ikastera pozik, nire traumak eta mamuak berrogeialdia arte gaudituko ez nituela jakin gabe.

Spotify Oihan da. Norbere arimaren truke sortzaileen musika munduko belarri guztietara zabalduko zuela agindu zuen profeta, nagusiei dirua emanez estortsionatzen gaituen makineria.

Gaur egungo musika-industriaren jabea denak, Euskal Herrian mainstreametik arnas-estuka bizirauten duten musikariak ez ezik, amateur inozoak inertziaz eraman ditu, norbere obra haren eskuetan utzi eta besterik egin gabe doako ospea eta entzule mordoaz zuzenekoak beteko zizkiela aginduz. Jakina, hori Spotify beraren marketinak sortutako fantasia bat besterik ez da izan, musika industriatik at sortzen dugunontzat behintzat.

Iazko abuztua aldera Musikariak Palestinarekin plataforma Spotifyri boikota egiten hasi zela irakurri nuen, bere CEO Daniel Ekek Israelgo armamentuaren finantzaketan parte hartzaileak 600 milioi euroko balioarekin Start-up "Helsing Defense" teknologian inbertitu eta Gaza sunsitzen laguntzen zuela salatuz. Argudio horrekin ez bakarrik Euskal Herriko

sortzaileei plataforma uzteko eskatu zigutenean, ez nuen kointzidentzia hutsa zenik pentsatu, baizik eta benetan Spotifyren aspaldiko esklabotasun artistiko eta sozial moduko horretatik aldentzeko behin betiko eta benetako arrazoia zela.

Finantzaketa militarraz gain, Musikariak Palestinarekin plataformak Spotifyk ez-mainstream sortzaileekiko duen prekarietatearen eta esplotazio ekonomikoaren berri ere eman zuen, musikariari stream bakoitzeko 0,003-0,005 euro ordaintzen baitu diskoetxeen eta managerren artean banatzeko. Zer esanik ez, diskoetxe edo managerrik gabe diharduen sortzaileari ezinezkoa egiten zaio miseria hori ko-bratzeko minimoetara heltzea, entzule nahikorik izan ezean.

Bestetik, Musikariak Palestinarekin adierazi bezala, Spotifyn "algoritmoek erabakitzen dute entzuleek zer entzuten duten eta zer ez, eta horrek playlist economy sortu du: artista askok ez dute aukerarik, algoritmoan sartzen ez badira, euren autonomia eta independentzia mugatuz. Gainera, abestiak deskontextualizatu egiten ditu, playlist tematikoetan esperientzia gisa eskaintzen baitira, obra osoaren testuingurua eta mezua galduz. Spotifyk, hortaz, ez ditu soilik diru-sarrerak murrizten, baizik eta artistaren lanaren balio artistiko eta soziala lausotu ere."

Gutariko asko horrekin identifikatuta sentitu ginen, eta Musikariak Palestinarekin taldeak Whatsapp eta Instagram bidez zabaldu zuen zerrendari atxikitu ginen. Zerrenda horretan Spotify uzteko asmoa adierazi genuen, baita entzuleak berdin jokatzera gonbidatu ere, sinistuta sortzaileok garela lehen urratsa eman behar dugunok entzuleak handik alde egin eta gure lana beste plataforma etikoago batzuetan entzuteko. 2025eko azaroan Spotify utzi izandako 160 talde-tik gorako zerrenda argitaratu zuten, urtarrilerako bigarren zerrenda batean 202 talderekin osatuko zena.

Izan ere, Musikariak Palestinarekin taldeak dagoeneko sortu du "Musikariak" webgunea eta doako aplikazioa, non 650 musikari baino gehiagoren obra osoa entzun daitekeen talde eta bakarlariren artean. Jakina, beste plataforma etikoen artean BERRIAko Badok Ataria dugu, euskal artisten doako katalogo handiena eskaintzen duena. Baita Deezer, Qobuz, Soundcloud eta, batez ere Bandcamp, musikariei kopuru bidezkoagoak ordaindu eta merchana saltzen laguntzen dien streaming bidezko webgunea.

Hau ikusita, Euskal Herrian Spotifyri egindako boikota Kataluniara eta estatuaren leku askotara sare sozialen bidez hedatu den adibidea izan da, non mota guztietako musikariak Spotifyren politika kapitalista eta globalizatuaren aurka protesta egiteko antolatu diren.

Musikariak Palestinarekin taldeak argi dauka: "... Spotifyrentzat ez gara inor, asmo hori bera bultzatu nahi dugu kontrako norantz: ez dadila ezer izan Spotify guretzat. Kontziente gara dimentsio horretako plataforma batean euskal musikariok apenas dugula ekonomikoki eragiteko gaitasunik. Baina sinetsita gaude egin dezakegun ekarpenik handiena dela boikot kolektiboa eta haren bitartez zabaltzen dugun mezua. Bidegurutze honetan topo egin dugu musikariak argi dugu gure kultur ekosistemaren egoera dena izanda ere, beste behin kritiko izatea tokatzen zaigula gure di-

rua non utzi erabakitzeke orduan. Baina argi ere badugu bakarrik ez goazela inora eta gure hautua bezain edo are beharrezkoagoa dela entzuleena."

Spotifyren kontra egiteko argudioak soberan onargarriak izan arren, era berean ez gaitzen totalitarioak izan, jakin baitakigu musikari guztiek ezin dutela Spotify utzi. Sortzaile ez-profesional gisa (onerako eta txarrerako, baina hori beste istorio bat da...) zerrendan dauden talde askori bezala, ez zait gehiegi kostatu handik alde egitea. Ez naiz industrian aritzen eta 25 urteren ondoren oraindik ere geure obran oinarritutako espazio kultural, alternatibo eta anti kapitalista batean sinesten dut. Hori bai, fakturak ordaintzeko astelehenetik ostiralera hezkuntzan jarduten dudalako, zorionez oraindik ere liluratzen nauen lanbidean; horregatik, sortzen dudan musika entzun nahi duenak beste nonahi aurkituko nauenaren ideiak ez dit lorik kentzen.

Baina gaur egun Euskal Herrian badira musikariak burua altxatu eta zuzenekoetatik behintzat bizi ahal direnak, eta Spotifyn egotea beharrezkoa dutenak. Handik ateratzeak algoritmotik isolatuko lituzke, entzuleek eta Spotify berak diseinatutako erreproduktzio-zerrendetatik ateraz. Bere musikaren irismena estatuko gainerako lurraldeetara ere murriztuko luke, orain euskalduna kultur "konpainia-animalia" gisa kulturari onartu dutelarik. Beraz ez ditut epaituko, hemen denok saiatzen gara alokairua, janaria eta wifa ahal dugun moduan ordaintzen.

Ez da kasualitatea joan den martxoaren 21ean Oihu bat Palestinarekin jaialdian parte hartu zuten talde bolondres gehienek oraindik Spotifyn jarraitzea. Eszenatokiaren gainean eta azpian tarteka arnasten zen postureoa gorabehera, bertan argi utzi ziguten sozialki konprometitzeko modu anitzak daudela eta zilegi dela hainbeste urte lortzea kostatu zaizuna arriskuan jarri gabe borrokari atxikitzea. Bestetik, belaunaldi berriek ere, tamalez, eszena kontsumista eta bisual batean eraikitzen hasi diren horiek ez lukete Spotify bezalako muntroak zamalkatu beharko baina beharrean aurkitzen dira, kontsumitzaileek aukeratutako plataforma nagusia delako.

**Zenbat, Nolako eta Noizko** galdera markek bideratutako kontsumoaren kultura jaiotako sortzaileek Spotify baina plataforma duinagoak merezi dituzte. **Zergatik** galdetzean zintzotasunez erantzungo dien makineria, guztion eskubi-deak bermatzen dituena. Gaiari buelta emango nioke orain, jadanik argudioak mahai gainean ikusita, eta entzulearen esku utziko nuke musikariaren duintasuna ekar dezakeen bitartekaritza elikatzearen lana.

Boikot Spotify eta etorri kontzertuetara. Modan dagoen eta petatzen duen horri ez bakarrik, talde guztiei entzutea. Doan entzun gaitzakezue baina kontzertuko sarrerarekin batera erosi taldearen CDa edo biniloa beti, eta ahal denean kamixeta, poltsa edo dena delakoa...euskal kultura kontsumitu sortzailea saldu gabe.

**Birkite Alonso**



# PRESENTE AL DAGO SEXISMOA EUSKAL KANTETAN?



© Marcus Spiske

Bat, bi hiru, erantzun berriro: euskal kanta sexistarik okurrirritzen zaizu? Galdera bota dut Instagramen artikulua hau idazteko. Neronek bi aletxo baino ez nituen gogoan, ez zehazki sexistak. Lehenengoa, Latzenen 'Laztana' mitikoaren maitasun autosuntsigarria: *Burua galtzen hasi naiz / inor ez bezela maite zaitudalako*. Bigarrena, Chill Mafiaren 'Gazte arruntaren koplak', Xabier Leteren 'Gizon arruntaren koplak' bezain androzentrikoa, bideoklip matxiruloak (parodikoak? Probokatzailleak? *marketinianoak?*) indartutakoa.

Inkestaren lehenengo erantzuna 'Laztana' izan denean pentsatu dut agian letrei dagokionez bai bizi garela euskal oasian. Hori azaltzeko hipotesiak barrundatu ditudan bitartean jaso ditut hamaika adibide (mila esker! espazio faltagatik kanpo utziko ditut kanta tradizionalak). Eihera kooperatiba feministako kide eta Labar musika proiektuko sustatzaile den Iñi Etxezarretarekin kontrastatu dut nire irakurketa.

## KONTZIENTZIAZIO EDO ZUZENTASUN POLITIKOA?

Euskal Herrian euskaraz sortzea hautu militantea den honetan, gaztelaniazko edo ingelesezko musika komertzialean baino presenteago daude euskarazko kantetan justizia sozialari lotutako baloreak; nabarmenagoa da mugimendu sozialen eragina, feminismoa barne.

Horregatik, gizonetako talde arrakastatsueni erreparatuta ere, errazago etorriko zaizkigu burura heterosexismoa alboratzen dituzten kantak: Berri Txarrak 'Lotsarik gabe', Glaukomaren 'Gure kaiola', Gatiburen 'Aske bizi!'

Halako saiakerek ez dut beti asmatzen. Negu Gorriak-en 'Sexu makina' aipatu didate Instagram bidez: bere garaian asmo onez eginda bazegoen ere, kurrinka egiten diola.

Garai berdineko Lin ton Taunen 'Hodei iluna' ekarri didate ere: *Lantegiak itxi dira, zer etorkizuna / Lana baita / Gizona gizon / Egiten duena* errepikatzen duen azken aldia. Eta emakumeak zer? misterio bat gaineratzen du. Androzentrisismoa agerian uzteko saiakera autokritikoa ote zen, edo kritika hori saihesteko pegotea? Auskalo.

## LETRA SEXISTAK EDO LETRA SEXUALAK?

'Soldadito marinero' edo 'Every breath you take' kritikatzek ez garaia Europako pop-a deabruztera. Aldiz, Malumaren '4 babys'-i kritikak indartu zuen regetoi eta trap latino genero matxistak diren diskurtsoa. Aurreiritzi arrazista, klasista eta sexofoboek azaltzen dute orokortze ariketa hori: puritanismoan hezitako begirada zuriak erraz nahasten ditu sexua eta sexismoa, bai letretan zein perreo dantzaren irakurketan.

Horren ifrentzua da euskal musikarekiko aurreiritzi positiboa: "Hizkuntzaren ideologiak dakar euskara ulertzea tradizio bezala, puru bezala, eta hortaz jendeak ez du identifikatzen sexismoa egon daitekeenik. Horri ikuspegi arrazista gehitzen badiogu, pentsatuko dugu beste lengoaia eta hizkerekin egiten den musikak matxistagoak direla propio", berretsi dit Iñik.

Instagrametik bidali didate Gatiburen 'Gabak zeruari begire': *Buelten dire eskotiek / Eta buelte uda, pekatu sasoie / Gabak zeruari begira / Ta zure marradun mini-gonie*. Aitzitik, nire ustez arazoa ez da gizon heterosexual batek eskote eta mini-gonei abestea, baizik eta gizon heterosexualen desioak nagusitzea musika eszenan eta, are gehiago, audientziak eta musika kritikak oso desberdin hartzea erotismoa Alex Sarduk edo Ines Osinagak gorpuzten dutenean.

Feminismoari esker ikasi dugu fokua jartzen sexua bezain beste alarma pizten ez duten horretan. Ainara Santamariaren Barinagarmenterriak Master Amaierako Lanaren bidali didate Instagrametik: "Musikagintza eta maitasun erromantikoa: 'Hesian' rock musika taldea adibide". Hona hemen 'Behar zaitut' abestiaren zatitxo bat: *nire zainak moztuko nitzuke zure mina baretzeko / Ta gaur, ondoan behar zaitut berriro, ez naiz nire bizitzaren jabe*. Abesti hau jaso du Ernaik gazteen arteko indarkeria sexistak lantzeko unitate didaktiko batean, Mikel Markezen 'Zure begiek'-ekin batera: *Niretzako nahi zinduzket / Sentimendu mugaezin hau / Zu gabe ez naiz ezer / Zu gabe zertarako bizi*.

Kupelak-en 'Voy a contar un caso' abestian topatu du lagun batek maitasunari buruzko narraitiba misogino bat. Neskak festarako makillatzearen feminitate errituala erridikulizatzen du, hurrengoa ohartarazteko: *No eches tú las redes ni kateatzeko / no tengo muchas ganas enamoratzeko / sois todas engañosas egia esateko*.

### ETXEKO TRAPU ZIKINAK GORDE?

Lekeitioko 48280 taldeari buruz idatzi dit Instagrameko lagun batek. Izugarritzko arrakasta duela gazte zein helduen artean eta hori albiste ederra dela euskarazko musika urbanoa egiten dutelako. Alabaina, zaila dela herrian kritikatzeko bere letrak (*zure atzi da XL Mercedes clase AMG*) eta, batez ere, bideoklip guztiak indartzen duten unibertsoa: mutil kuadrillak, autoak, ur-motorrak. Emakume bakanak nobiaren paperean agertzen dira. Etxezarretaren esanetan, identifikatu behar dugu lengoia berbalaz gain zer beste lengoaiak ematen duten sarbidea sexismora: esaterako, "ulertu behar dugu gorputz jakin batzuek nola modifikatzen duten espazioa, atmosfera, giroa".

Komunitate txiki eta azpiratu bat garen neurrian, zaila izan daiteke euskal sortzaileen sexismoa kritikatzeko. Feministak bereziki bakarrik sentitu daitezke ariketa horiek egiterakoan: ondo azaltzen du Uxue Alberdik Kontrako ezarririk-en harrerari buruz mintzo denean.

Agian horregatik, Google-en 'M Clan machismo' idatzita jarraian agertuko zaigu 'Carolina', baina 'Mikel Markez sexismo' idatzita, ez zaigu agertuko 'Eskolako lanak', parekoa eta esplizituagoa dena: *Eskolako lanak tabernetan egiten dituzten neskatxak gustatzen zaizkit / (...) tititxo gozoak nabarmentzen zaizkie / edozein zakil bufandaz inguratuko luketen alutxoak / beren gorputzetako orri bakan eta leunetan*.

Ostera, Emakunderen abesti ez sexisten *playlist*ean sartu zuten 'Konplize ditut' kanta deskubrituko dugu; praktika on gisa jaso badute ere, eztabaidarako mamia duena.

Musika Bulegoaren 2024eko txostenaren arabera, euskal emakume musikariak sektorearen %39,7 dira, eta karrera hauskorragoak, diru-sarrera xumeagoak eta ardura postuetarako sarbide eskasagoa daukate. Ainara LeGardon, Maialen Akizu, Leire Lopez Ziluaga, Iratxe Retolaza, Itsaso Gutierrez... Ez dira gutxi musika industriaren genero-arrakalak sakonean aztertu dituzten euskal feministak: seinatu dute gizonen hegemonia taldeen konposizioetan, letren eta musiken erregistroetan, ekoiztetxeetan, hedabideetan, baita oholtza gaineko eta kontzertuetako lehen lerroetako gorputz adierazpenetan ere.

Letra sexistak izebergaren punta dira: eskoteei buruz kantatzea baino kritikagarria da musikari ospetsu batek elkarrizketa batean egitura patriarkalak ukatzea.

### AZKEN OHARRA

Mikel Urdangarinen 'Oihana'-n bidali didate: *Gaur be egin didazu jana? / Zugaz ez dut faltan botatzen ama (...)* Maite al zaitu nobioak / Harek ez daki esku artean zer daukan. Oihanaren pisukide den narraitzaileak onartzen du aldatu direla garaia, aldatu behar duela berak: *agur ni banoa pisukide maitia / gehio ez dizkidazu plantxatuko arropak*. Letra sexista ote da edo pribilegio maskulinoei kritika?

Pedagogia feministarako baliatzen dugu sorkuntza obren analisi kritikoa, baina erne egon behar dugu irakurketa kategorikoekin eta zentsura-jarrerekin. Ildo horretatik, biziki gomendatzen dut Vladimir Nabokoven 'Lolita' salbatzen duen Luna Miguel idazlearen 'Incensurable' liburua.

Malumari buruz hitz egin ordez, Tokischa eta Young Miko goraiatzea nahiago dudana moduan, ondorioztatu dut sexismoa badagoela euskal kantetan, baina *playlist* askoz luzeagoa ehuntzen dutela "gizonkera batuaren" hausturek: Anaritik Olatz Salvadorrera, J Martinatik Euskoprincessera, Afrika Bibangetik Mursegora, Zetaketik Neomakera, Belakotik Shünera, Merina Grisetik Labarrera.

June Fernandez



## LAGUN: 10 AÑOS ASEGURANDO LA CULTURA Y EL ESPECTÁCULO

Sello distintivo: Empresa Vasca con Proyección Global



Dirección de Seguridad y Emergencias (Acreditados), Larrialdi- eta Segurtasun-Zuzendaritza.



Consultoría de Seguridad y Planes de Autoprotección. Segurtasun Aholkularitza eta eta Autobabes Planak.



Expertos en Protocolos frente Agresiones Sexuales (Punto Violeta), Agresio Sexuarien aurkako Protokoloetan Adituak.



# lagun

jose@servicioslagun.com

## LAGUN: 10 URTE KULTURA ETA IKUSKIZUNA ZIURTATZEN

Estiloa: Euskal Enpresa Global Proiektzioarekin



Acompañamiento de Artistas en Gira. Artistas Kiran Laguntzea.



Auxiliares de Servicios para Eventos. Ekitaldietako Zerbitzu Auxiliarrak.



Blockers y Reservas de Espacio para Rodajes Cinematográficos. Rodajeetarako Espazioa Blokeatzea.



Contamos con Departamento de Seguridad Propio. Segurtasun Departamentu Propioa Dugu.

PUNTO VIOLETA  
PUNTO MOREA

NO ES NO

# MUSIKAGINTZAN ERE, BIZITZA OSOKO PRESTAKUNTZA



**Prestakuntza, trebakuntza, heziketa... Bizitzako zein jendarteko esparru, diziplina, lanbide edota aktibitate orok du bere ikasketa prozesua. Zer gara ba, eta nola jardun dezakegu, jakintza, ikuspegi edota egiteko moduen transmisio eta elikadurarik gabe?**

Industriari erreparatuz gero ere, beste hainbeste esan dezakegu. Fomakuntza ezinbestekoa da, bai teknikoki, eta baita balioei dagokienez ere, trebatzeko, profesionalitzatzeko, egonkortzeko, hedatzeko, ...

Kultura eta sormen industriari dira horren adibide. Are gehiago, azken hamarkadetan sektore ekonomiko bezala eduki duten bilakaera kontuan hartuta. Unescoren arabera (2022), kultura eta sormena munduko Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 3,1 eta enplegu osoaren % 6,2 dira. Eta hor kokatzen da musikaren industria ere: Euskal Herrian 39,5 milioi euroko, eta artistak kontuan hartu gabe, 600 lanpostu zuzen baino gehiagoko, aktibitate ekonomikoa da (Kulturaren Euskal Behatokia, 2025). Jakina da horrekin ez dela bukatzen Euskal Herriko musika aktibitatea. Historikoki komunitatetik (gaztetxeak, elkarteak, txosna, herri eta auzo batzordeak...) musika proiektu eta ekimen ugari antolatu eta sustatzen dira profesionalen presentzia mugatuagoarekin.

Historikoki eta egun, eta oxala gero ere. Baina aurretik aipatutako bilakaeran, eta zenbakiei erreparatuz, sektorearen profesionalizazioa errealitate bat da.

Bilakaera horretan, sektorearen profesionalizazio nabarmenez gain, bestelako aldaketa sakonak eman dira eta erronka berriak ere uste baino gertuago sumatzen dira: kontsumo ohitura berriek eta digitalizazioak, besteak beste, musika ekoizpen, banaketa eta kontsumo moduak eraldatu dituzte. Lehenik eta behin, baliabide eta tresnen eskuragarritasunak, ekoizpenaren deszentralizazio, demokratizazio eta merketze aukera ekarri dute. Autoekoizpenen areagotzea ez da kasualitatea, ezta ziurrenik sortzaileena ere.

Banaketari dagokionez, interneten presentzia hegemonikoak, banaketa globala, zuzena (bitartekariak mugatuz) eta berehalakoa bermatu du. Musika kontsumitzeko modu nagusietako bat, artisten lanen (diskoak, abestiak, ...) entzutea, ere erabat aldatu da. Ia aurkezpenik behar ez duen streaming eredia da erregea: etengabeko kontsumoa, pertsonalizatua eta datuetan oinarritua da nagusi mundu zabalean. Honekin batera, entzute zatitua (diskoena baino *single* eta *playlist*ena) eta eramangarria edo mugikorra (*smartphone* bitartez) dira kontsumitzeko modu azkar eta zergatik ez, likidoaren, ezaugarri garrantzitsuenak.

Eta digitalizazioarekin jarraituz, nola ez, hainbat esparrutan erroko aldaketak ekarri dituen eta ekarriko dituen Adimen Artifizialaren agerpena. Alde batetik, aukera berriak irekitzen dituena, baina bestetik, tentuz jokatzera ere eskatzen duena.

Promozio, eta oro har, komunikazio moduak ere aldatu egin dira musikaren industrian. Medio tradizionalen eskuragarritasunak berdinetan jarraituko du, baina ez dira publikoarengana iristeko bide bakarrak. Eta horretan, ezinbestekoak bihurtu dira Instagram, TikTok, edota YouTube bezalako sare sozialak. Sortzaile eta hartzaileen arteko harremana zuzenagoa bihurtzeaz gain, aurretik aipatutako autokudeaketarako aukerak ere handitu ditu.

Datuak izan ditugu hizpide lerro batzuk gorago, baina ez dago soberan horretan sakontzea. Algoritmo hitza agertu da gutako askoren ahotan. Musika entzuteko plataforma digitalen datu masiboak darabiltzate, honekin entzuleen portaerak aztertu eta ezagututa, eta hauek baliatuta, marketing estrategia pertsonalatuak erabiltzeko aukera emanez, eta ondorioz datuetan oinarritutako industria batera jauzia eginez. Plataforma digitalen agerpen eta nagusitasunarekin ere, lege eta eskubideen testuinguru eta egoera berriak sortu dira: egile eskubide, diru-sarrera eta erregulaziek protagonismo gehiago hartu dutenik ezin uka.

Zuzeneko emanaldiei begira ere, formatuak, baliabideak, arauak, sustatzaileak, edota publikoen ohitura zein profilak aldatu egin dira.

Artisten bidelaguntza erdigunean kokatu dezakegun beste errealitate bat da. Gero eta profesionalagoa den industria honetan, askotariko kudeaketa, erabaki, egoera eta erronken aurrean akonpainamendu egoki bat egitea ezinbestekoa da.

Gizartearen erronka orokorrekin ere, badute bere isla musikagintzan, eta genero arrakala gainditzea zein jasangarritasunaren norabidean lan egitea gai estrategikoak dira.

Guzti honek, industria ereduaren aldaketa ekarri du: sortzaile independenteen hazkundea, diskoetxe tradizionalen izaera eta rolaren bilakaera, edota diru-sarreraren dibertsifikazioa, besteak beste. Negozio ereduaren anitzagoa da. Eta ondorio nagusietako bat profesionalizazioarekin lotutakoa da: funtzio, rol, profil eta lanpostu berrien sorrera eta eskaera.

Kulturaren Euskal Behatokiaren 2025eko txostenera bueltatuz, bertan garbi azaltzen dira zeintzuk diren sektorean bilatu eta



eskatzen diren profil eta konpetentziak: lidergo enpresariala; konpetentzia digitala; ekipamendu teknikoa menperatzea; marketina, komunikazioa eta harreman publikoak; administrazio laboral, fiskal edota ekonomikoa; lizentzien eskubidea eta kudeaketa... Guztiak daude zuzenki lotuta lerro batzuk gorago deskribatutako musika industriaren testuinguru berriarekin, badagoelako partekatutako analisi eta behar bat. Beste industria batzuetan gertatu den bezala, prestakuntza espezializatua gero eta beharrezkoagoa da, artistentzat zein sektoreko gainontzeko profesionalentzat. Dimentsio artistikoaz gain diziplinarteko ikuspegia eskatzen du, besteak beste, kudeaketa, komunikazioa, teknologia, sormena edota saregintza uztartzen dituena.

Gauzak honela, bertigoak hartu gaitzake, amorruek, haserreak, beldurak akaso... eta zilegi da. Baina bada beste aukerarik ere, eta ikaskuntza akulu interesgarria izan daiteke zentzu horretan, testuinguru ziurgabe eta berri hauek egokitzeko bide bezala, baina era berean balioei hertsiki lotu eta ikuspegi kritikoz jarduteko. Ikastea ez baita izan inoiz dena irenstea, hausnarretik eta digestiotik du gehiago. Eta ez da ekinaldi baten asetzen den gosearen pareko ere ez, prozesu jarraia da, goseak bezala bueltan bisitatzen baikaitu bizitza osoan zehar. Bizitza Osoko Ikaskuntza eskubide bat baita, edo horrela ulertzen baitugu, ez etapa ezberdinetan banatzen den prozesu moduan. Eta arestian esan bezala, musikaren industriak edo musikagintzak ere etengabeko elikadura hau behar dute.

Xabier Igoa eta Arkaitz Biain



# ARKABIA<sup>^</sup>



**GRADO EN**

# Producción de Música y Sonido para la Industria del Entretenimiento

---

**La formación oficial pionera en  
creación y tecnología musical  
con sello propio**

*Hartu aurrea etorkizunari!*





TOC



BEN YART



LAURA SAM



GAZZI



KILIKI



XSAKARA



MIRUA



LOS DELINQUENTES



EUSKOPRINCESS

# LAST TOUR BOOKING, KONTRATAZIO IREKIA



ALBERT PLA



HENS



NACHO VEGAS



AIRU



AIMARZ



ASHLEYS



JAVI SANCHO



HOFE



SERGIO BEZOS & PABLO IBARBURU




COLECTIVO DA SILVA



NANPA BÁSICO



LOS BENGALA



GRISON



CERVATANA



MARWÁN



1111

[contratacion@lasttour.org](mailto:contratacion@lasttour.org)

# FESTIVALES: UNA EFERVESCENCIA QUE FLUCTÚA ENTRE LUCES Y SOMBRAS



© Hanny Naibaho

**Los agentes creen que el momento de efervescencia actual está tensionado por los precios, los aforos multitudinarios, la incomodidad y el debate sobre las ayudas públicas y la necesidad de apoyar el circuito estable de salas.**

BILBAO. 2025 volvió a ser un año destacable para la música en vivo en Euskadi, con una asistencia de casi dos millones de personas a las múltiples propuestas desplegadas, con la mayor parte de la tarta, que se va acercando a los 40 millones de euros, recayendo en las recaudaciones de los festivales. El momento de efervescencia también arroja sus sombras, entre las que los actores involucrados –organizadores, mánagers, músicos, discográficas, programadores– destacan los precios, la saturación e incomodidad o su sostenibilidad, a la vez que se abre el debate sobre las ayudas públicas y el apoyo al circuito estable de salas.

“El ecosistema está en una fase de consolidación. Hay una oferta amplia y diversa, con propuestas distintas conviviendo en un territorio relativamente pequeño”, explica Jurdana Burgoa, CEO de Last Tour, organizadora de Bilbao BBK Live o Azkena Rock. “Es difícil hablar en términos absolutos, se trata de si todos tienen sentido y un proyecto detrás. El mercado tiende a autorregularse”, aclara.

En un punto de “equilibrio razonable” ve la situación Spasky, responsable de BBK Legends Bilbao. “En Euskadi hay una oferta amplia y diversa, lo que enriquece la vida cultural. Otra cosa es que todos los festivales tengan el mismo sentido o recorrido”, explica. Por su parte, Sergio Cruzado, mánager y exorganizador de festivales, considera que son suficientes. “Hay variedad de tamaños, estilos y localizaciones; el trabajo está en consolidar los que hay”, asegura, mientras que desde el sello Baga Biga se considera que

“es un momento de gran efervescencia de festivales, con una oferta amplia que en algunos casos puede generar saturación”, según Arkaitz Ormaetxe.

Independientemente de que apuesten por la especialización o el eclecticismo, lo importante, según Burgoa, es que “cada uno tenga una propuesta coherente y creíble”. Según ese criterio, conviven las citas modestas con la de Kobetamendi. “Es referencia en el mapa de los grandes festivales europeos y mundiales, que hoy son espacios de encuentro que van más allá del consumo cultural. Generan experiencias compartidas, identidad colectiva y momentos que forman parte de la memoria”, defiende.

## ¿MÚSICA O EXPERIENCIA?

Spasky se muestra “cómodo” con el formato del *Legends*, que “encaja con nuestra filosofía y un público” que “valora la comodidad, la visibilidad, la calidad del sonido y una experiencia sin masificaciones”. “A los festivales va mucha gente que el resto del año no ve música en directo. Hay una parte de público musical y otra de eventos”, explica Cruzado. Por su parte, desde Baga Biga se defienden aquellos “bien planteados, con sensibilidad artística y compromiso con el entorno” frente a los que “priorizan lo experiencial o social por encima de lo musical”, según Ormaetxe.

Los festivales se han vuelto *sexies* para el capital, escribe Pepo Márquez en *Antineutral. Música y economía moral en la era del turbocapitalismo*. Y para las instituciones públicas. Desde el *Legends* se destaca la dificultad que implica trabajar con artistas de cachés elevados cuando se apuesta por “la calidad y una experiencia alejada de la lógica del gigantismo”. Spasky ve legítimo el debate sobre el apoyo público por criterios de “exigencia, transparencia

y reflexión sobre el entorno”, aunque reconoce que la pervivencia del suyo sería “económicamente complicada” sin apoyo del Ayuntamiento de Bilbao y la BBK.

Y mientras la CEO del Bilbao BBK Live considera “clave” la colaboración público-privada en el desarrollo del ecosistema cultural en Euskadi, desde GinMusica se oponen al macrofestival. Según Cruzado, resulta más fácil justificar subvenciones relacionadas con la promoción, la industria y el turismo que con la cultura desde los parámetros del retorno. Jokin Pinatxo, nombre real del proyecto musical Janus Lester, advierte tantos aspectos positivos como negativos.

“Tocar en un festival te sacude. Tu música llega a miles de personas que quizás nunca habrían comprado una entrada para verte. Hay una generosidad en ese encuentro fortuito que tiene algo de magia”, explica el músico de Bera, que consideraría “deshonesto” no destacar también que “eres una pieza más de un engranaje muy grande”.

### ¿Y LAS SALAS DE CONCIERTOS?

Donde las opiniones casi se tornan unánimes es en la necesidad de una programación estable de música en vivo. “Es una parte fundamental del ecosistema, donde se desarrolla la escena, donde crecen los artistas y donde se construye el vínculo directo con el público”, explica la CEO de Last Tour, promotora que organiza “más de 650 conciertos anuales en salas y espacios de distinto tamaño”.

Por su parte, Spasky considera “esenciales” las salas porque suponen una red que crea “una escena viva y hábitos culturales consolidados”. Cruzado cree que sin las salas “la cultura se moriría de inanición”, y desde Baga Biga se defiende que “los festivales las necesitan”. “La sala es donde se construye todo lo que luego brilla en los grandes escenarios, donde un artista aprende a leer a un público, a gestionar el silencio, a sostener una hora y media de show sin red. Pero más allá del artista, es donde se teje una comunidad real de músicos, público y técnicos”, según Pinatxo.

Gotzon Uribe, presidente de Kultura Live, cree que Euskadi cuenta con “una salud creativa envidiable, pero un sistema descompensado”, ya que las salas privadas, que “somos el laboratorio real de la cultura”, se ven obligadas a operar desde la resistencia antes los eventos masivos. “Los grandes festivales son, hoy en día, grandes motores económicos y sociales, pero no debemos confundirlos con la base de la cultura musical”, razona Uribe. “Sin salas no hay cantera, y sin ella, los grandes eventos se quedan sin artistas locales que programar”, concluye.

### Andrés Portero

Artikulu hau Musika Industriaren Elkartek (MIE) sustatzen du, Euskal Herriko zuzeneko musikaren egungo erronken inguruko hausnarketa eta eztabaida sustatzeko helburuarekin. Informazio gehiago: [www.mielkartea.eus](http://www.mielkartea.eus)



# **KONTZERTU ARETO PRIBATUAK, MUNDU ALDAKORREAN**



**Euskal Herriko zuzeneko musikan erreferenteak diren bi aretoentzat garai garrantzitsuak dira hauek: Bilboko Kafe Antzokiak 30 urte bete zituen 2025ean, eta Azpeitiko Sanagustin aretoak 15 urte beteko ditu 2026an. Datu horiek kontuan hartuta, Kafe Antzokiko Gotzon Urbere eta Kulturaz Kooperatibako Nerea Arakistainek areto pribatuek etengabe eraldatzen ari den zuzeneko musikaren sektorean bizi duten egoera eta epe laburrean dituzten erronkak azaldu dizkigute.**

### KAFE ANTZOKIA

**Zein izan da Kafe Antzokiaren bilakaera 30 urteetan zehar?**  
Euskal Herriko musika eszena ez da ulertzen Kafe Antzokiaren existentzia gabe. 2025ean 30 urte bete ditu. Bilboko erdigunetik munduari modu integratzaile eta modernoan begiraturaz euskaratik sortutako proiektu integrala da. Zaila da une garrantzitsu batez hitz egitea. Gure hileroko agendek gure proposamenen aniztasuna erakusten dute. Ez gara ekitaldien edukiontzi hutsak, baizik eta jendeak ezagutzen, eskertzen eta errespetatzen duen kultur preskriptore bat gara.

**Zeintzuk dira gaur egun Kafe Antzokiak zuzeneko musikaren egungo eszenan dituen erronka eta zailtasun nagusiak?**

Gaur egun, erronka nagusia ez da talentu falta, lehiarako asimetria baizik. Areto pribatuek errealtate paradoxiko bati egin behar diogu aurre: industriaren oinarriko ehuna sostengatzen dugunak garen bitartean, erakunde publikoek askotan lehia zuzen gisa jokatzen dute. Espazio publikoetan doako ekitaldiak ugaritzeak edo auditorium eta 'arena' handietan programatzeak – dirulaguntza handiak jasotzen dituzte – merkatua desitxuratzen dute. Horrez gain, kultura-eragile estrategiko gisa egiten dugun lana aitortzeko zuzeneko laguntzak falta dira.

Euskadiko kontzertu-areto pribatuek duten erronkarik esanguratsuenetako bat azpiegitura publikoekin lehiatzea da, hala nola antzokiekin, auditorioekin eta edukiera handiko esparruekin, diru publikoarekin finantzatuta baitaude. Azpiegitura horiek, administrazio publikoen babesaren bidez, abantaila nabarmena dute edukiak sortzeko gaitasunean, horretarako aurrekontu askoz ere zabalagoak izatea ahalbidetzen baitie.

Areto pribatuen eta auditorio publikoen arteko lehiaren fenomenoak kultura-sektoreko baliabideen banaketari buruzko eztabaida planteatzen du. Areto pribatuak desabantailan sentitzen dira, azpiegitura publikoekin finantzaketa eta promoziorako gaitasun handiagoa handiagoa dutelako. Bi eredu arteko koexistentziak tentsioak sortzen ditu, areto pribatuek publiko beragatik lehiatu behar baitute, baina aurrekontu askoz txikiagoekin. Egoera hori kontzertuen programazioari ez ezik, epe luzerako jasagarritasun-aukerei ere eragiten die areto pribatuen kasuan, publikoa erakartzeko, jarduerak mantentzeko eta kultura-panorama aldarokorren garrantzitsuak izaten jarraitzeko modu berritzaileak aurkitu behar baitituzte.

**Zein modutan eragin dio digitalizazioak publikoarekiko harremanean?**

Digitalizazioak aretoen eta ikusleen arteko kontaktua berantolatatu du. Sare sozialek zabalkundea demokratizatu badute ere, algoritmoaren diktadura ere ezarri dute; gaur egun, kontzertu baten ikusgarritasuna publizitate inbertsio digitalen menpe dago askotan.

Gaur egungo erronka "pantailako nekeari" aurre egitea da. Kontzertua aretoan kokatu behar dugu, ez bakarrik banda baten kontsumo gisa, baizik eta ekintza sozial fisiko eta errepikaezina gisa, streaming-ak inoiz lortu ezingo duen zerbitu.

### SANAGUSTIN ARETOA

**Zeintzuk dira gaur egun dituzten Sanagustin aretoan dituzten erronka nagusiak?**

Euskal Herriko taldeei aukerak ematen saiatzen gara, eta uste dugu jendeak hori balioan jartzen duela. Garrantzitsua iruditzen zaigu estilo nahiz diziplina ezberdinak oholtza gainean ikustea eta publikoari eskaintza zabala egitea. Guretzat hori baita kultur komunitatea bizirik mantentzeko eta hazteko giltza; bide horretan lanean jarraitzea da gure erronka nagusia.

**Zein modutan eragin dio digitalizazioak publikoarekiko harremanean?**

Edozein kultur arlotan bezala, digitalizazioak zuzeneko eragina izan du gurean ere. Etengabe ari gara ikasten eta plataforma berrietara egokitzen. 2026ra begira, komunikazio kanal berriak ireki nahi ditugu gure jardunaren berri eman eta jende gehiagorengana iristeko. Gaur egun abantaila asko eskaintzen dituzten euskarri ugari daude, eta horietara egokitu eta modu eraginkorrean erabiltzea da gure lana.

**Zure ustez, zein da kontzertu-aretoen funtzioa artista berrien garapenean?**

Kontzertu-aretoetan jotzea ezinbestekoa da artista berrientzat. Talde askorentzat, areto txikiak dira lehenengo aldiz oholtzara igotzeko, euren soinua probatzeko eta publikoarekin zuzeneko harremana sortzeko gune bakarrak. Zentzu horretan plaza garrantzitsua garelako uste dugu.

**Zein aldaketa edo egokitzapen behar dira zuzeneko musika-aretoen iraunkortasuna bermatzeko?**

Musika aretoen jarraipena bermatzeko ezinbestekoa izango da erakundeen babesaren eta laguntza. Gaur egun jaialdi handiek kontzertu aukera zabala eskaintzen dute, eta horrek eragin zuzena eta kaltegarria du areto txiki eta ertainetan. Aretoak urte osoko kultur eskaintza anitza dute; oreka hori bilatzea eta tokiko programazioa sustatzea izango da etorkizuneko giltza.

**Kulturaz Kultur Kooperatiba**



# LA ESCUCHA COMO ACTO DE REBELDÍA



El arte en general y la música en particular ha servido históricamente como forma de reflexión sobre nuestra realidad y sobre la sociedad en la que vivimos. Una música que nos invite a imaginar nuevas realidades y nos haga dudar sobre preceptos anteriores será aquella que ponga al oyente en una necesidad de escucha profunda. Nos parece interesante este punto de vista en donde ponemos en el centro la actitud que propicia en el oyente más que la música en sí misma. En la actualidad centrar la atención en un aspecto concreto y tomarse un tiempo para tener una relación íntima con la escucha es en sí mismo rebelarse contra lo que nos propone la sociedad.

En 1952 John Cage desafía la escucha convencional de la música con su obra 4'33 poniendo en el centro la atención del oyente a todo el espacio sonoro. Cuanto más profundicemos en la escucha mayor será nuestra percepción del y más consciencia tomaremos tanto de la capacidad de escucha como del entorno sonoro que nos rodea. Esta experimentación se reformula con performances como *Ear Ly* de Pauline Oliveros en donde se pide a los músicos que escuchen el entorno acústico y se camuflen en él con sonidos que se integren de manera orgánica. De esta manera la propuesta está guiando al espectador en esa escucha del no-silencio. Esto enlaza directamente

con otros movimientos artísticos como la música abstracta en donde se ponen en valor los sonidos cotidianos como elementos sonoros para crear diferentes piezas. Una vez que asumimos esto, la manera que vamos a escuchar nuestro día a día va a tomar otra dimensión. Esta profundización en la escucha y en la reacción que puede tener cada cambio del espacio sonoro en nuestra percepción también la podemos observar en el minimalismo. En esta corriente musical se explora la percepción del tiempo y como el desarrollo sonoro nos puede llevar a entrar en un estado de alerta calmada en donde la asimilación de la música se puede entender de una manera más profunda y visceral. Prueba de ello es gran parte de la obra de Morton Feldmann. Otro movimiento que lleva más allá la profundización en la escucha del sonido en toda su complejidad es el espectralismo. Partiendo de la exploración de la composición de cada sonido se crea una estructura basada en ese elemento mínimo convirtiéndose en una forma de expandir la más mínima esencia del propio sonido en el tiempo.

Con todas estas y más exploraciones hechas a lo largo del siglo XX que no tenemos espacio para enumerar en estas líneas nos encontramos en un momento en que todas ellas se convierten en herramientas con las que la música actual puede seguir buscando una voz propia para nuestro tiempo en donde rete al oyente. Sin embargo, hay que pensar en la realidad actual del oyente y poder llevarlo hasta el punto en donde pueda entrar de una forma profunda en la escucha sin que pueda sentirse abrumado por este reto. Por ello se antoja imprescindible hacer un acompañamiento en este camino hacia esa búsqueda en donde tanto compositores como músicos tenemos la responsabilidad de poder favorecer este acto que hemos considerado de rebeldía como es pararse y escuchar. Para ello son imprescindibles tanto la educación y como la mediación. Ambos conceptos, aunque muchas veces muy cercanos, presentan dos formas diferentes de afrontar este trabajo de acompañamiento del oyente que se complementan entre sí.

La educación tiene una mirada global a largo plazo, busca crear un cambio generacional sustentado en una base profunda que llegue a todos los estratos de la sociedad. En el caso de la música experimental, el objetivo debe ser crear una escucha crítica y abierta a dejarse sorprender. En la época en la que vivimos está establecida una apreciación de la música a través del reconocimiento. Cuando asistimos a un concierto estamos buscando estructuras musicales y combinaciones sonoras o rítmicas que ya conocemos, de esta forma el placer estético llega a través de colmar nuestras expectativas. Sin embargo, nos parece interesante despertar el gusto por lo extraño y por lo que no sabemos



reconocer. Esta actitud muchas veces no depende tanto de la música en sí misma, ni de la música que estemos habituados a escuchar, sino de la eliminación de prejuicios hacia aquello que no conocemos. La preguntaría sería cómo se podría educar a una sociedad a esta actitud hacia la música. Uno de los proyectos que ha propuesto una respuesta para ello es *Soinua Iratzarri*, en donde un equipo multidisciplinar que forman compositores, pedagogos e intérpretes trabaja con escolares en la creación de nuevas obras partiendo del análisis de lo que escuchan, lo que es un sonido y de cómo todo ello se puede ordenar en el tiempo para expresar lo que queramos en cada momento. El hecho de poner a personas de edades tan tempranas en la tesitura de elegir qué sonidos pueden funcionar para expresar las ideas o sentimientos que tengan en mente hace que inmediatamente tengamos un oído hacia todo lo que escuchamos mucho más curioso. Por supuesto, esto hay que desarrollarlo para poder trabajarlo en profundidad pero *Soinua Iratzarri* pone una base sólida durante varias sesiones de trabajo para que se le pueda dar una continuidad después. También hay que apuntar que este proyecto no se lleva de manera masiva y generalizada por lo que está actuando casi como proyecto piloto de lo que se podría implementar en la educación general. El convertir al individuo en persona activa respecto a lo sonoro y al arte en general en vez de mantenerlo en una actitud pasiva es lo que puede llevarlo a la actitud de escucha que defendemos. Poder educar de manera integral es mucho más sencillo en la edad de escolarización al tener una estructura social preparada para ello pero también se podría aplicar a otras edades para las cuales habría que utilizar otro tipo de recursos.

Los frutos de la educación siempre van a verse en el largo plazo y es por ello que de manera paralela se debe trabajar en la mediación, que tendrá resultados más inmediatos. La mediación no tiene una visión tan general sino que se basa en una acción mucho más concreta. Está dirigida a acercar un tipo de música concreta, o cualquier faceta artística, a un grupo más o menos concreto de la sociedad que se encuentre históricamente alejado de ella. Un ejemplo podría

ser el de la mediación de la música experimental hacia la juventud de entornos con escasos recursos materiales. El primer paso para llevar a cabo la mediación sería encontrar un denominador común entre la música y el grupo que se quiere acercar. En este caso un concepto común entre los dos mundos podría ser la contracultura o la mirada antisistema del mundo. En torno a ese concepto se podría construir todo un proyecto para que un grupo social que quizás no tiene ni tan siquiera el conocimiento de la existencia de una música experimental, entre de lleno en su escucha y la sienta como suya de manera relativamente rápida. Para ello, como hemos dicho antes, los músicos y compositores tenemos la responsabilidad también de abrir horizontes e imaginar nuevos escenarios y maneras de poder facilitar esta escucha. Si ponemos como base la música en sí misma como algo que no se va a modificar tenemos que estar abiertos a poder modificar espacios, protocolos escénicos o cualquier elemento externo. Ejemplo de ello son conciertos de música contemporánea realizados en casas okupa integrando dinámicas de conciertos punk, algo bastante extendido en Centroeuropa. Estas acciones nunca van a tener un propósito masivo y por su naturaleza misma la mediación siempre va a ser mucho más focalizada. Por todo ello, es imposible que la mediación consiga un cambio profundo de base en la escucha de la sociedad pero sí puede ir creando nuevos aliados de manera más inmediata que entiendan la importancia de alzarse en rebeldía y ponerse a escuchar.

En resumen, defendemos la experimentación en la música como vehículo para abrir oídos y poder favorecer una sociedad en donde se deje tiempo y espacio para escuchar sin prejuicios y con profundidad. Mientras tanto, como músicos y compositores, reflexionamos sobre nuestra responsabilidad en educar y mediar para acompañar en ello a la sociedad.

**Musikagileak Elkartea**



# CHAT GPT-RI GALDEZKA



© Emiliano Vittoriosi

***“Una banda musical falsa creada por IA gana 1 millón de oyentes en Spotify mientras los músicos de verdad pierden millones”<sup>1</sup>; “Spotify declara la guerra a la música generada por IA y retira miles de canciones”<sup>2</sup>, “Deezer frena el fraude en música generada por IA y abre su tecnología de detección a toda la industria”<sup>3</sup> “La música creada por IA genera ya contratos millonarios y activa la alarma entre los compositores.”<sup>4</sup>***

Zenbat artikulua edo berri irakurri ditugu azken urte eta hilabetetan adimen artifiziala eta musikaren inguruan? Ehundaka?, milaka? Kontuak eramatea ezinezkoa da adimen artifizialaren abiadura gizakiena baino askoz azkarragoa delako.

Adimen artifizialak gizartean duen presentzia ukaezina da; medikuntza, zientzia eta klima bezalako sektoreetan, batzuk aipatzearen, izan ditzazken ontasunak ukaezinak diren bezalaxe.

Baina zer gertatzen da adimen artifizial sortzailea musika bezalako disziplina batean erabiltzen denean? Teknologia enpresa haundiek beraien adimen artifizial sortzaileak sarean dagoen musika guztiarekin elikatzen eta entrenatzen ari dira; musika lan hauek jabetza intelektualeko

eskubideen bitartez babestuta daude, inork ez du baimenik eskatu, ordea, eta orain ez dago atzera bueltarik.

SGAEK (Sociedad General de Autores y Editores) egile eskubideak kudeatzen dituen entitateak 2025. urteko irailean “Estudio sobre el impacto económico y social de la IA en la creación musical y sus efectos en otros ámbitos de la cultura”<sup>5</sup> izeneko txosten bat argitaratu zuen. Bertatik ateratako ondorio nagusiak egungo musika sorkuntzaren errealitatea isladatzen dute: eragin ekonomikoaren aldetik, adimen artifizialak 2028. urterako egile eskubieengatik jasotzen diren diru sarrerak %28an murriztu ditzazke. Honek 100 milio euroko galera suposatuko luke urte horretan bakarrik eta 160 milioetik 180rako galera 2025-2028 aldian.

Adimen artifizialaren erabileraren aldetik, inkesta erantzun zuten %34ak, jada, momenturen batean erabili du bere lanak sortzeko, eta %17ak laster erabiltzeko asmoa erakutsi zuen.

Sektorearen kezka ere aztertu da txostenean: alde batetik, sortzaileen kolektiboa diru sarreraren murrizketa dela eta arduratuta dago, eta orokorrean, egoera honen aurrean ziurgabetasuna eta desegongortasun sentimenduak ditzutela aipatzen da. Merkatutik kanpo geratzeko beldurra

ere oso nabarmena da inkesta erantzun zuten pertsonen aldetik. Adimen artifiziala erabiltzen duten sortzaileek hiru arlotan egiten dute nagusiki: musika sorkuntza, ekoizpena eta sustapenerako. Erabiltzen dituzten tresnen artean Chat-GPT edo Izotope One, testuak eta letrak sortzeko; Suno edo Bandland, musika sorkuntzarako software bezala, eta Spotify AI, sustapen edukiak diseinatzeke, besteak beste. Azkenik, txostenak ere argi uzten du adimen artifizial sortzailearen erabilera arautzeko beharra.

Zentzu honetan, saikera pare bat egin dira espainiako gobernutik. 2025eko urtarilean, Kultur Ministeritzak adimen artifizialeko ereduak entrenatu ahal izateko sortzaileen lanen erabilera kolektiborako lizentziak ematen zituen errege lege-dekretua bertan behera utzi behar izan zuen, sektorearen adostasun ezagatik. Egile eskubide entitateek dekretuaren testua babesten zuten arren, sektoreko hainbat profesionalentzat ez zen justua. Azken saiakera momentu honetan garatzen ari dira. Artisten lan harreman berezia regulatzen duen 1435/1985ko Errege Lege Dekretuaren erreforma aitzakitzat hartuta bertan 13. artikulua gehitu nahi dute non testuinguru honetan adimen artifizialaren erabilera araututa utzi nahi duten. Ideia berriztatzailea eta zilegizkoa izan daitekeen arren, kontuan hartu behar da lan harreman testuinguru horrek artista guztiak bat barne hartzen dituela. Ohiko moduan gertatzen den bezala, oso erronka zaila da enplegatzaile eta enplegatuen aldarrikapen, behar eta helburuak adostea.

AISGE (Artistas Intérpretes Sociedad de Gestión) aktore, bikoizle, dantzari eta eszena- zuzendarien jabetza intelektualeko egile eskubideak kudeatzen dituen entitateak 13. artikuluekin bat ez datorrela adierazi zuen orain aste batzuk bere webgunean partekatutako adierazpen baten bidez.<sup>6</sup> Ez da harrizkoa, eta gainontzeko artisten egile eskubideak kudeatzen dituzten entitateek adierazpen hau babestea ere ez da harrizkoa izango.

Argi dago adimen artifizial sortzailearen erabilera arlo kultural eta artistikoan arautzeko akordioak ez dela egon orain arte, eta alderdi guztiak %100ean babestuko luketen araudi bat egitea ezinezkoa izango dela dirudi. Beraz, momentuz, artisten obrak babesik gabe jarraituko dutela ematen du.

Arteen balio gehigarria neurtu ezina da; ez da soilik ondare kulturala edo gizarte bezala eratzen gaituela, hunkitzen gaituen horren atzean pertsona bat, gaitasun hori duen artista bat dagoela, jakitea ere bada. Artea artistarik gabe ulertezina delako.

Nik behintzat horrela sentitu izan dut beti. Musika da gertuen bizitzen dudana disziplina artistikoa eta gehien hunkitzen nauena ere; abesti bat bihotzera, arimara, iristen zaidanean lan hori sortzeko gaitasuna izan duen pertsonarengan pentsatzeko joera daukat. Oilo ipurdia, parrea, edo negarra, sortarazi didan abesti horren atzean ze nolako artista dagoen pentsatzen dut. Sentsazio hau ere adimen artifizialak lapurtuko digulakoan nago.

Pasa den urteko abenduan irakurri nuen artikulua batek hotzikara sortarazi zidan: "El 97% de las personas en el

mundo no sabe distinguir entre una canción hecha por humanos y una con IA". Orain 5 urte edo, hau gertatzea erabat ezinezkoa pentsatu genezakeen arren tamalez, egi bihurtu da. Nola jakin, orduan, entzuten ari garen hori pertsona batek egin duen ala ez? Nola jakin musika digitalki entzuteko ordaintzen ari garen plataforma horrek adimen artifizial sortzaileaz egindako abestiak onartzen dituen? Deezer-ek<sup>8</sup> abestiak erabat adimen artifizial sortzailea erabiliaz sortuak izan diren edo ez detektatzeko erraminta bat gehitu dio bere plataformari. Honen helburua gardentasuna lortzea da, bai entzuleentzat eta baita sortzaileentzat ere. Etiketa sistema baten bidez entzuleak alde aurretik jakingo du nork edo "zerk" egin duen abesti ("edo soinu") hori.

Horrelako neurri eta aldaketak geroz eta ugariagoak izango dira etorkizunean, eta ziur aski momenturen batean, adimen artifizialaren erabilera duten abesti, gauza, produktu edo zerbitzuak egun supermerkatuan "produktu ekologikoak" dauden bezala etiketatutako egongo direla. Arautegi eta marko juridikioaren aldetik ere, aldaketak gauzatuko dira bere erabilera arautua egon dadin... baina izango al dugu gizakiok adimen artifiziala modu etiko eta zintzoan erabiltzeko gaitasun edo borondatea? Beharbada Chat GPT-ri galdetu beharko genioke nola jokatu adimen artifizialaren aurrean, gauza aldrebesagoak gertatzen ari dira gaur egun munduan.

#### Musikari (Euskal Herriko Musikariak)



- 1 <https://vandal.elespanol.com/random/una-banda-musical-falsa-creada-por-ia-gana-1-millon-de-oyentes-en-spotify-mientras-los-musicos-de-verdad-pierden-millones/39072.html>
- 2 <https://www.lavanguardia.com/tecnologia/20230511/8955283/spotify-declara-guerra-musica-generada-ia-retira-miles-canciones-pmv.html>
- 3 <https://esmusica.org/deezer-frena-el-fraude-en-musica-generada-por-ia/>
- 4 <https://www.publico.es/sociedad/musica-creada-ia-genera-contratos-millonarios-activa-alarma-compositores.html>
- 5 <https://www.sgae.es/noticia/estudio-de-sgae-sobre-la-ia-en-la-musica/>
- 6 <https://www.aisge.es/aisge-rechaza-regulacion-ia-en-articulo-13-del-real-decreto>
- 7 <https://www.infobae.com/tecnologia/2025/12/16/el-97-de-las-personas-en-el-mundo-no-sabe-distinguir-entre-una-cancion-hecha-por-humanos-y-una-con-ia/>
- 8 <https://es.deezercommunity.com/musica-cultura-y-juegos-en-deezer-community-17/deezer-implementa-una-herramienta-de-deteccion-de-ia-de-vanguardia-para-la-transmision-de-musica-69626>

arketak

# GURE KULTURA ZUREKIN BIZITZEN DUGU



VIVIMOS  
**NUESTRA MÚSICA**  
CONTIGO



